

DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA 2014-2018



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna
Igualdad

2019KO MARTXOA

AURKIBIDEA

• DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN GAKOAK	3
• BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA. IKUSPEGIA ETA METODOLOGIA	8
• PROZESUAREN EBALUAZIOA	14
• GAUZATZEAREN EBALUAZIOA	21
• EMAITZEN ETA INPAKTUAREN EBALUAZIOA	46
• BERDINTASUNA_ AI	56


BERDINTASUNERAKO III. PLANA

Ebaluazio honek xedetzat duen Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren eta haren ezarpen prozesuaren GAKOAK



DONOSTIAKO UDALAREN IBILBIDEA BERDINTASUNAREN ARLOAN

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana azken urteetan Udala berdintasun politiken esparruan garatzen ari den ibilbidearen baitan kokatuta dago.



Berdintasunerako III. Plana prestatzeko funtsezko bi tresna hartu ziren oinarritzat:

- Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa (2012-2013).
- 2008-2013 aldirako Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa. Ateratako ondorioak kontuan hartuta, egokitzen joan zen Planaren egitura aldatzea. Aurrekoa, Udalaren antolakuntzarekin bat zetozen arloetan egituratuta zegoen, eta III. Plana diseinatzean, aintzat hartu zen zer aldaketa lortu nahi ziren eta zer arlo estrategikotan esku hartu behar zen herritarrengan eragin handi eta zuzenagoa izateko.

PLANA TRESNA GISA. GAKOAK

- **LEGE ESPARRUA:** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa, EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VI. Plana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020.

- **EGITURA:**

- **7 ESKU-HARTZE LERRO**

Berdintasunerako III. Plana 7 esku-hartze lerroren inguruan egituratuta dago. Lehenengo lerroa berdintasunaren aldeko gobernantzarena da, hau da, berdintasun printzipioa Udaleko antolakuntza eta politiketan txerta dadin sustatu nahi du, esku-hartze publiko eraginkorragoa, eragingarriagoa eta ekitatiboagoa lortzeko. Eta gainerako sei lerroak eguneroko bizitzako hainbat arlori buruzkoak dira, eremu horietan beharrezkoa baita erakunde publikoek esku hartzea, genero arrakalak murrizteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneranzko bidean aurrera egiteko.

- GOBERNANTZA
 - ZAINZA ERANTZUKIDEAK
 - INGURUNE IRAUNKORRA ETA INDARKERIA MATXISTARIK GABEA
 - JAIK ETA KULTURA EZ-SEXISTA
 - OHITURA OSASUNTSUAK ETA KIROLA
 - EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA EKONOMIKOA
 - AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA

- **52 HELBURU ZEHATZ ETA 142 NEURRI**

Esku-hartze lerro horiek garatzeko, 52 helburu zehatz eta 142 neurri definitu dira, eta horiek, era berean, ekintzetan bereizita daude.

- **GAUZATZE MAILAREN, EMAITZEN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK**

Berdintasunerako III. Planak neurri bakoitzaren gauzatze maila eta emaitza neurtzeko adierazleak ditu, baita helburu zehatz bakoitzaren emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak ere.

- **AURREKONTUA**

Helburu zehatz bakoitzak erantsita darama proposatutako neurriak behar bezala garatu ahal izateko beharrezko den inbertsioaren aurreikuspena, barne hartzen dituena bitarteko ekonomikoak eta dedikazioa. Guztira, 1.315.300 € eta 49.070 ordu.

EZARPEN ETA JARRAIPEN PROZESUA

- **PLANGINTZA OPERATIBOA**

Urtero-urtero, urteko lehen hiruhilekoan, III. Planean erantzukizuna duten udal departamentu, enpresa eta erakundeetako bakoitzak zer helburu eta neurri heldu behar zien aukeratu da, eta horiek ezartzeko zer ekintza gauzatuko diren zehaztu da.

Plangintza operatibo hori prestatzeko, alde biko bilerak egin dira Berdintasun Bulegoaren eta udal departamentu eta erakundeen artean, eta ondoren Berdintasunerako Arloen arteko Batzorde Teknikoan eta Batzorde Politikoan onartu dira.

- **JARRAIPENA**

Urte amaieran, urteko Plan Operatiboaren ezarpen maila aztertu da, eta informazio hori **JARRAIPEN TXOSTENETAN** jaso da. **2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko** jarraipen txostenak daude.

2015eko lehenengo sei hilekoan, Udal Informatika Zentroak **JARRAIPENERAKO APLIKAZIO** bat garatu zuen, Berdintasun Bulegoaren laguntzaz, eta aplikazio hori oinarritzko aurrerapausoa izan da III. Plana kudeatzeko tresnen hornikuntzan. Aplikazio hori udal departamentu, enpresa eta erakundeetan Berdintasunerako Planaren ardura duten pertsonak osatzen dute. Bertan sartutako informazioak jarraipen txostenak eta ebaluazio hau egiteko oinarri gisa balio izan du.

UDAL EGITURAK

- **BERDINTASUN BULEGOA**

Berdintasun Bulegoa arduratu da Berdintasunerako III. Plana diseinatzeaz, Plana ezar eta gara dadin sustatzeaz eta hura ebaluatzeaz. Berdintasun arloan berriazko prestakuntza (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra. UPV/EHU) duten lau agentek, administrari batek eta atalburu batek osatzen dute Bulegoa. Lantalde osoa jardunaldi osoan ari da.

- **BULTZADA INSTITUZIONALERAKO EGITURAK**

2006an, Alkatetzako ebazpen baten bidez, sailarteko bi koordinazio egitura sortu ziren, berdintasun politikak garatzeko. 2010eko otsailean, orduan ere Alkatetzako ebazpen baten bidez, batzorde horien funtzioak zehaztu ziren, egiturak indartzeko eta horien funtzionamenduari bultzada emateko.

- **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa:** departamentu bakoitzeko teknikarien ordezkariak biltzen dira bertan.
- **Berdintasunerako Sailarteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa:** Planarekin zerikusia duten arloetako politikari arduradunak eta arlo horietako zuzendariak biltzen dira bertan.

- **LANKIDETZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO EGITURAK**

- **Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseilua.** Talde feministek, emakumeen elkarteek eta Berdintasun Bulegoak osatzen dute; berdintasunerako udal politiken diseinuan parte hartzen du, eta berdintasunarekin eta donostiar emakumeen errealitatearekin loturiko gaiak aztertzen ditu.
- **Emakumeak eta Hiria Foroa.** Tradizionalki gizonenak izan diren gaietan emakumeek parte har dezaten laguntzen duen lantaldea da. Hona hemen gai horietako batzuk: hirigintzako plangintza eta gure hiriko udal zerbitzuen mantentzea.
- **Emakumeen Etxeko Jarraipen Batzordea.** Berdintasun Bulegoak, Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluak, Emakumeak eta Hiria Foroak eta Emakumeen Etxea Elkarteak osatzen dute, eta gune hori koordinatzen dute, kudeaketa eredu misto baten bidez.

- **ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO EGITURAK**


- **Berdinsarea:** Donostiako Udala Berdinsarea – Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sareko kidea da 2006az geroztik, hau da, sortu zenetik. Sare horren helburua da tokiko administrazioetatik arlo horretan kudeatzen dituzten programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- **Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea:** Gipuzkoako berdintasun teknikarien elkarlanerako gunea, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua. Haren helburua da teknikariek udalerrietan egiten duten lana sendotzea eta taldeko gogoeta nahiz jarduna lurralde ikuspegitik bideratzea.

UDAL GOBERNUAREN ALDAKETA

2015ean udal hauteskundeak izan ziren, eta aldatu egin zen Udaleko Gobernuak. Horrek eragina izan du Berdintasunerako III. Plana ezartzeko prozesuan eta martxan, berekin ekarri baitu neurri batzuei lehentasuna ematea beste batzuen kaltetan.

EBALUAZIOA

Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana ebaluatzeko prozesuan erabilitako IKUSPEGIA ETA METODOLOGIA




GAUZATZEAREN, PROZESUAREN ETA EMAITZEN/INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Donostiako Udalaren Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako III. Plana zer neurritan ezarri den zehazteko, ezarpen eta jarraipen prozesuak egokiak izan diren ikusteko eta ekintzek zer emaitza eta inpaktu izan duten neurtzeko. Hortaz, oinarritzko abiapuntua da Berdintasun Plan berria prestatzeko.

Proposatutako lan prozesuan eta metodologian hiru mailatako ebaluazioa aurreikusten da:

- **PROZESUAREN EBALUAZIOA:** ezarpen prozesua bera eta haren tresnak ebaluatzen ditu, prozesua erraztu eta zaildu duten faktoreak identifikatzeko eta Berdintasunerako IV. Plana prestatzean kontuan hartzeko.
- **GAUZATZEAREN EBALUAZIOA:** helburutzat du aztertzea zer neurritan eta zer neurriren bidez gauzatu den Berdintasunerako III. Plana.
- **EMAITZEN ETA INPAKTUAREN EBALUAZIOA:** helburutzat du Berdintasunerako III. Planak zer garrantzi edo eragin izan duen zehaztea (aurrerapenak, aldaketak...).



EBALUAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA


Berdintasunerako III. Planaren ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da. Gauzatzearen ebaluazioa nagusiki kuantitatiboa izan da; prozesuaren ebaluazioa, berriz, kualitatiboa, eta emaitzen nahiz inpaktuaren ebaluazioa, mistoa.

LEHEN MAILAKO ETA BIGARREN MAILAKO ITURRIAK

Metodologiaren oinarri gisa, bigarren mailako iturriak (jarraipen txostenak eta memoriak) erabili dira, baita lehen mailako iturriak ere, ebaluazio honetarako propio prestatutakoak (*ad-hoc* sortutako galdetegiak eta gidoiak).

PROZESUA. FASE KRONOLOGIKOAK

Ebaluazio proiektua Planaren ezarpena amaitu aurretik hasi denez, segida kronologiko hau erabili da.



Jarraian datozen tauletan, deskribatuta dago ebaluazioaren maila bakoitzean aplikatu den metodologia.

PROZESUAREN EBALUAZIOA

Plana TRESNA gisa baloratzea, baita hura EZARTZEKO erabilgarri dauden baliabideak ere.



XEDEA	METODOLOGIA
<ul style="list-style-type: none">• Plana tresna gisa baloratzea: egitura, formatua, euskarria, dimentsioa...<ul style="list-style-type: none">○ Arlokako egituraren ordeztu (II. Plana) esku-hartze lerroen araberako egitura (III. Plana) erabiltzeak ekarri duen aldaketaren balorazioa.• III. Plana kudeatzeko egiturak baloratzea: batzordeak, kontseiluak, lantaldeak.• Baliabideen egokitasuna baloratzea: prestakuntza; aurrekontua; laguntza teknikoak; lidergo politikoa; udal departamentu, enpresa eta erakundeen partaidetza...• Jarraipenerako aplikazioa baloratzea.	<ul style="list-style-type: none">• Berdintasun Bulegoko berdintasun teknikariei elkarrizketa sakonak egitea, bakoitzak kudeatzen dituen departamentu, erakunde eta enpresekiko harremanei buruz, baita beren ardurapeko esku-hartze eremuei buruz ere (guztira 4 elkarrizketa).• Inkesta anonimo bat diseinatzea eta Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoko kideei egitea. Google-drive formulario bat, galdera itxi eta irekiekin.• Behin elkarrizketak eta inkestak eginda, baterako lan saio bat egitea Bulegoko berdintasun teknikariekin, lortutako informazioa aintzat hartuta.
	<p style="text-align: center;"><u>tresnak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoko kideentzat ad-hoc diseinatutako galdetegia.• Berdintasun teknikariekin egin beharreko elkarrizketetarako ad-hoc diseinatutako galdetegia.• Lan saiorako ad-hoc prestatutako gidoia.• Berdinbide – Berdintasunerako Bideak.

GAUZATZEAREN EBALUAZIOA

Berdintasunerako III. Plana NEURRIEN gauzatze mailari lotuta baloratzea.



XEDEA	METODOLOGIA
<ul style="list-style-type: none">• Abian jarritako neurriak<ul style="list-style-type: none">○ Esku-hartze lerro bakoitzean.<ul style="list-style-type: none">▪ Zein. Deskribapena.▪ Gauzatzearen %.○ Helburu zehatz bakoitzean.<ul style="list-style-type: none">▪ Zein. Deskribapena.▪ Gauzatzearen %.• Esku-hartze lerro bakoitzean abian jarri gabeko neurriak<ul style="list-style-type: none">○ Arrazoiak.• Aurrekontuaren egikaritzea.<ul style="list-style-type: none">○ Gastua guztira.○ Aurreikusitako aurrekontuarekiko %.○ Orduak, guztira.○ Aurreikusitako orduetikiko %.• Neurri bakoitzeko adierazle zehatzak	<ul style="list-style-type: none">• Oinarrizko balioak kalkulatzeko (III. Planaren dokumentutik abiatuta).• Gauzatze maila kalkulatzeko, orokorra eta esku-hartze lerro bakoitzarena.• Gauzatzearen adierazle zehatzak kalkulatzeko neurri bakoitzeko. <p style="text-align: center;">iturriak</p> <ul style="list-style-type: none">• Urteko Jarraipen Txostenak.• Jarraipen eta ebaluaziorako aplikazioan jasotako informazioa.

EMAITZEN ETA INPAKTUAREN EBALUAZIOA


Berdintasunerako III. Plana HELBURUEN erdiespenari lotuta baloratzea.



XEDEA	METODOLOGIA
<ul style="list-style-type: none">• Plana ezartzeak mesedetu dituen aldaketak, genero arrakala nagusiei begira.• III. Planaren balio erantsia identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none">• Emaizen eta inpaktuaren adierazleak kalkulatzeko beharrezko informazioa biltzea (helburuari dagozkion neurriak ezarri badira, betiere).• Elkarrizketa sakonak egitea funtsezkoak diren profil/postuei:<ul style="list-style-type: none">○ Donostiako Emakumeen Etxeko dinamizatzaileak○ Berdintasuneko zinegotzia○ Berdintasun ataleko burua○ Aurrekontuetako talde teknikoa○ Gazteria arloko zuzendaritza eta ordezkariak○ Lehendakaritza Zuzendaritza• Herritarren diagnostikorako inkestan galderak sartzea.• Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin lan saioa egitea.
	<p style="text-align: right;"><u>tresnak</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Elkarrizketetarako gidoia.• Inkestako galderen diseinua.• Jarraipen eta ebaluaziorako aplikazioa.

PROZESUAREN

Plana TRESNA gisa baloratzea, baita hura EZARTZEKO erabilgarri dauden baliabideak ere



PLANAREN BALORAZIOA TRESNA GISA

Bai berdintasuneko teknikariek, bai Berdintasunerako Batzordeko Teknikoko kideek adierazi dute **III. Plana lan tresna egokia eta baliagarria izan dela udal barnean** eta Udalean berdintasun arloko jarduna antolatu eta planifikatzeko balio izan duela. Ildo horretan, udal departamentuen ustez informazio zein ezagutza iturri izan da, eta lan prozesuetan nahiz udal jardunean generoaren ikuspegia txertatzen lagundu du, jarraibide eta neurri zehatzak emanez. Erakunde batek adierazi du ez dela tresna ona izan, zaila izan delako berau erakundearen beraren planarekin koordinatzea.


Plana departamentuka antolatuta egon behar (II. Plana) **esku-hartze lerroka antolatuta egotea** positibotzat jo da. Berdintasun Bulegoaren ustez, egitura horri esker Planaren ikuspegi estrategikoagoa eta osoagoa eduki ahal izan da. Departamentukako antolamenduarekin argiago geratzen dira departamentuen erantzukizunak, baina lerrokako antolamenduari esker beste departamentu batzuk ere txertatuz joan daitezke Planak iraun bitartean.

Esku-hartze lerroen artean, **Gobernantza (1L) lerroa bere edukien argitasunagatik nabarmentzen da.**

Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa (6L) eta Autonomia eta norberaren boterea (7L) lerroek neurri nahasi edo ilun ugari biltzen dituzte, Donostiako Emakumeen Etxeari buruzkoak izan ezik (6L).

Zaintza erantzukideak (2L) eta Ohitura osasuntsuak eta kirola (5L) lerroen zailtasuna da plan sektorialekin lotuta daudela; hortaz, hausnartu egin behar da nola uztartu Berdintasunerako Plan orokorra berdintasun plan sektorialekin.

Esku-hartze lerroen egokitasuna



Era berean, interesgarria litzateke gogoeta hori **enpresa eta erakunde autonomoen (Dbus, Donostia Kultura) Berdintasun Planekiko koordinaziora** zabaltzea; plan horiek barne hartzen dituzte langileak, lan baldintzak eta pertsonen kudeaketa, baita zerbitzuak ere.

Planaren dimentsioari dagokionez (7 esku-hartze lerro, 52 helburu eta 142 neurri), zabalegizat jotzen da, eta IV. Planean hobetzeko lerro gisa identifikatu da esku-hartze lerroen, helburuen eta neurrien kopurua murriztea.

Nahiz eta Planaren **iraunaldia** urtebetez luzatu den, legegaldiaren amaierarekin bat etortzeko eta lanaren jarraipena Planaren diagnostikoarekin eta ebaluazioarekin uztartzeko, 4 urte eta erdiko iraunaldiak balorazio positiboa jaso du. Adierazi denez, denborak aurrera egin ahala testuingurua aldatu egiten da, eta iraupen luzeagoak kalte egin diezaioke sormenari. Onuragarria da ziklo berri bat hastea eta esku hartzeko beste modu batzuk bilatzea.

Planaren **maketazioa** argia eta egokia izan da. Berdintasun Bulegoan inprimatuta daukate, eta egunero erabiltzen dute.

BERDINTASUN BULEGOAREN BARNE ANTOLAMENDUA PLANA EZARTZEKO

III. Planaren kudeaketarekin eta jarraipenarekin lotutako funtzioak eta erantzukizunak Berdintasun Bulegoko teknikarien artean banatu dira, eta haietako batek bere gain hartu du planaren **koordinazio orokorra**. Hilero egiten dituzte bilera teknikoak: hilabete batean, Berdintasun Bulegoaren ardurapeko neurrien jarraipena egiten dute, eta hurrengoan gainerako udal departamentu, enpresa eta erakundeen ardurapeko neurriena, txandaka.

Astean behin bilera egiten dute atalburuarekin, Planaren jarraipenaren berri emateko. Berdintasuneko zuzendariak eta zinegotziak une zehatzetan eta hala eskatuta parte hartzen dute Planaren kudeaketan, askotan beste zuzendaritza batzuekiko interlokuzio politikoari lotuta.

Udal departamentu, enpresa eta erakundeekiko interlokuzio lana berdintasun teknikarien artean banatuta dago, arlo eta eskumenen arabera. Zailtasun handiena interlokuzio taldeen kopuru handiak dakar, plangintza eta jarraipena asko luzatzen baitira horren ondorioz. Horietako batzuk bateratzeko aukera aztertu behar da.

UDAL DEPARTAMENTU, ENPRESA ETA ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAMENDUA PLANA EZARTZEKO

Udal departamentu, enpresa eta erakundeen barne antolamenduari dagokionez, guztiek dute **interlokuzio teknikoa** Berdintasun Bulegoarekin, horrek baitu bere gain III. Planaren ezarpenaren antolamendu eta koordinazioaren ardura teknikoa.

Zenbaitetan, **berdintasuneko barne lantalde** bat izaten da, departamentuan edo erakundeetan Plana hedatzeko (Gizarte Ekintza, Lankidetzeta, Donostia Kultura, Musika eta Dantza Eskola, Euskara, Gazteria, Lehendakaritza, Aurrekontuak); beste batzuetan, zereginak edo ardurak esleituta eta arloko bileretan jarraipena eginez hedatzen da. Kasuren batean adierazi da ez dagoelako inolako barne antolakuntzarik III. Plana ezartzeko.

III. PLANA KUDEATZEKO EGITUREN BALORAZIOA

BULTZADA INSTITUZIONALERAKO EGITURAK


Aurretik aipatu den moduan, departamentuen arteko koordinaziorako bi egitura daude berdintasun politikak garatzeko: **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa (Batzorde Teknikoa)**, departamentu bakoitzeko teknikarien ordezkariak biltzen dituen, eta **Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa (Batzorde Betearazlea)**, Planean zerikusia duten arloetako politikari arduradunak eta arlo horietako zuzendariak biltzen dituen.

Batzorde Teknikoa oinarrizko egitura da Plana ezartzeko, eta balorazio ona eman diote bai Berdintasun Bulegoak, bai udal departamentu, enpresa eta erakundeek.

Izatez, interlokuzio taldeen %93ren ustez Batzorde Teknikoa egokia da Berdintasunerako Planaren kudeaketa, koordinazio eta jarraipenerako egitura gisa. Batzorde horren alderdietatik balorazio onena jaso dutenen artean, nabarmentzekoak dira Berdintasun Bulegoarekiko koordinazioa eta bileren edukia. Balorazio kaskarra jaso duen alderdia Batzorde Betearazlearekiko koordinazioa da.

Balioespenen arabera, **Batzorde Betearazleak** Planaren plangintza eta jarraipena egiteko baino **hobeto funtzionatzen du proiektu zehatzak sustatzeko**.

Bi egitura horiez gainera, hainbat **lantalde espezifiko** daude: puntu kritikoak, zeharkakotasuna... Horiek ongi funtzionatzen dute; beraz, lan formula esportagarria izan daiteke. Lantalde horietan parte hartzen duten interlokuzio taldeek modu positiboan baloratzen dituzte bai lantaldearen saioen edukia (5,5 puntu 7tik), bai maiztasuna eta gidaritza (5,2), bai lortutako emaitzak (4,2).



Eta, halaber, **Berdintasuneko Langileen Batzorde Teknikoa**, non sindikatuek, Berdintasun Departamentuak eta Giza Baliabideen Departamentuak parte hartzen duten. Egitura garrantzitsua izan da Berdintasuneko I. Barne Plana eta sexu jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio eta jardute protokoloa garatzeko.

LANKIDETZA ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO EGITURAK

Aurretik aipatu denez, hiru egitura erabakigarri daude emakumeek udalerriko berdintasun politketan parte hartzen dutela bermatzeko: Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua, Emakumea eta Hiria Foroa eta Emakumeen Etxearen Jarraipenerako Batzordea. Horietako lehenengoari aldian-aldian ematen zaio III. Planaren ezarpenaren berri, baina gainerakoek **oso paper mugatua izan dute III. Planaren jarraipenari** dagokionez, haien jarduna esku hartze espezifikoko arloetara bideratu baita (indarkeria, hirigintza...).

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO EGITURAK

Berdinsarea – Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien sarearen baitan eta Gipuzkoako teknikarien sarearen baitan garatutako lanak eragina izan du III. Planaren ezarpenean. Adibidez, **generoaren araberako inaktuaren aurretiazko ebaluazioak** (1.1.8. neurria) egiteari buruzko jarraibidea Berdinsarearen barruan tresna hori tokiko eremuan garatzea sustatzeko lantalde bat sortu zelako eta Udalak bertan parte hartu zuelako egin zen. Eta indarkeriaren alorrean, **Beldur Barik programa**, Bendinsareak gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko sortua, oso garrantzitsua izan da (2.2.3. neurria). Gipuzkoako berdintasun teknikarien sarean parte hartzeak **mainstreaming estrategia** sendotzeko balio izan du, nagusiki (1L_Gobernantza).

BALIABIDEEN EGOKITASUNAREN BALORAZIOA

Nahiz eta errealitatean **erabilitako baliabideak ez diren inondik ere nahikoak gizaratean dauden genero arrakalei aurre egiteko**, Berdintasunerako III. Plana ezartzeko erabili direnen gaineko azterketa egin da.

Hainbat interlokuzio taldek berdintasun programaren **aurrekontua** pixkanaka handitzen ari dela eta beren departamentuetan berdintasunera bideratutako partida espezifikoa finkatu direla aipatu dute, Planaren ezarpen prozesuak ekarritako lorpenen artean.

Hala ere, askok uste dute III. Planera bideratutako baliabide ekonomikoak ez direla nahikoak haren ezarpen egokia bermatzeko, eta erronkatzat aipatzen dute Planaren ezarpenean parte hartzen duten gainerako udal departamentu, enpresa eta erakundeetan berdintasunera bideratutako aurrekontu partidak ezar ditzaten lortzea.

Berdintasuneko langileei dagokienez, beharrezkotzat jotzen da berdintasun teknikariak sartzea bai Berdintasun Bulegoan, bai gainerako udal departamentu, enpresa eta erakundeetan, baita Donostiako Emakumeen Etxean ere. Era berean, garrantzitsutzat jotzen da berdintasun arloko prestakuntza lanpostu horietarako betekizun gisa jasotzea langileen zerrendan.

Aurrekontua handitzea eta berdintasun teknikariak kontratatzea batera hartu beharreko neurriak dira, behar bezala kudeatzeko.

Berdintasun arloko prestakuntza egokitzat jotzen da, baina ez nahikotzat. Hurrengo Planerako helburu gisa aipatu da prestakuntza eskaintza zabaltzea eta prestakuntza ekintzetan parte hartzen duen pertsona kopurua handitzea, prestakuntza lanpostuarekin lotuta.

Planaren plangintza operatiboa eta jarraipena egiteko **jarraipenerako aplikazioa** garatzea hobekuntza handia izan da, eta Planaren kudeaketa sistematizatzea erraztu du, nahiz eta oraindik badiren hobetu beharreko zenbait alderdi (nahitaezko eremuak zehaztea, onuradunen adierazlea ezabatzea, adierazle espezifikoak berraztertzea...). Kasu gehienetan, interlokuzio taldeek urte amaieran betetzen dute, eta haien ustez erabilitako lan orduak zenbatestea nahiz betetze maila zehaztea dira atal zailenak.

III. Plana indarrean egon den bitartean, Planaren ezarpenean parte hartu duten **udal departamentu, enpresa eta erakundeen** kopurua nabarmenki hazi da aurreko planarekin alderatuta, eta ezarpen prozesu horrekin bat egin dute, besteak beste, honako hauek: Finantza, Idazkaritza, Lehendakaritza eta Plan Estrategikoa. Batzorde Teknikoa osatzen duten interlokuzio taldeen iritziz, III. Planaren ezarpen prozesuan hobekien funtzionatu duen gaietako bat beste departamentu batzuetarako hedapena izan da, hain zuzen ere. Dena den, konpromiso maila eta egindako lana oso desberdina da batzuen eta besteen artean, eta berretsi egin da funtsezko departamentu batzuen inplikazioa lortu beharra dagoela, horien partaidetza hutsala edo apala izan delako.

Udal enpresa eta erakunde autonomoen partaidetza konplexuagoa da. Zenbait kasutan, egitura handiak dira (Donostia Kultura, Donostia Kirola), eta interlokuzio talde bakarra ez da nahikoa izaten. Berdintasun arloko barne unitate bat behar litzateke.

Kasu batzuetan, interesgarria izan daiteke berdintasun teknikariek departamentuek (ingurumenekoak, adibidez) garatutako proiektu eta ekimenetan parte hartuz bideratzea lana.

Berdintasun Bulegoaren aldetik, udal departamentu, enpresa eta erakundeen partaidetzatik hobekien baloratutako alderdiak Batzorde Teknikoa eta interlokuzio teknikoa dira. Kasu honetan ere, balioespen kaxkarrena duten alderdiak interlokuzio betearazlea eta Batzorde Betearazlean duen partaidetza dira.

Udal departamentu, enpresa eta erakundeen balorazio orokorra

Partaidetza Batzorde Teknikoan

Interlokuzio teknikoa

Jarraipenerako aplikazioa betetzea

Edonola ere, Planaren aratutako lanaren kalitatea ezarpenarekiko lidergo nahiz Departamentu, erakunde edo enpresaren konpromiso politikoa eta maila garatutako neurrien komunikazioa zein hedapena

funtsezkotzat jotzen dira, eta IV. Planerako erronkatzat.

III. Planaren ezarpenean esku hartzen duten udal departamentu, erakunde eta enpresetako interlokuzio taldeen artean, % 73k uste dute euren esku-hartzea jaso duten Planeko neurriak garatzera bideratu diren baliabideak egokiak eta behar bestekoak izan direla, eta % 23k, ordea, kontrakoa iritzi diote.

de
Beteazlean


n
t
e
r
l
o
k
u
z
i
o

b
e
t
e
a
r
a
z
l
e
a

P
a
r
t
a
i
d
e
t
z
a
B
a
t
z
o
r

Baliabide nagusien egokitasun mailari buruz egiten duten balorazioari dagokionez, balorazio onena jaso duen baliabidea **Berdintasun Bulegoaren aholkularitza eta laguntza** izan da, eta horren atzetik geratu dira Batzorde Teknikoa bera, plangintza bilerak, lantalde espezifikoa eta jarraipenerako aplikazioa.

Berez, interlokuzioen % 80en ustez, Berdintasun Bulegoaren aholkularitza eta laguntza da Berdintasunerako Planean



Baliabide kaskarren artean, hauek aipatu dira: Batzorde Politikoa eta zuzendaritzaren/politikarien laguntza, berdintasunerako erabilgarri duten aurrekontua eta berdintasun arloko prestakuntza eskaintza.

Bestalde, zenbait baliabide falta izan direla aipatu dute, eta horien artean **denbora** nabarmendu dute, baita departamentu, enpresa edo erakundearen **zentraltasuna eta konpromisoa berdintasunarekiko**. Era berean, prestakuntza sakonagoa, zehaztapena eta beste departamentu batzuen erantzukidetasuna ere aipatu dira hutsune gisa.

GAUZATZEAREN EBALUAZIOA

Berdintasunerako III. Plana NEURRIEN gauzatze mailari lotuta baloratzea.




Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak iraun duen bitartean, **aurreikusitako 142 neurrietatik 115i** heldu zaie; hau da, **ekite tasa % 80,9koa** izan da.

	Neurriak			Baliabideak		Agentek*	
	III. Plana	Ekitea	%	Orduak	€	Emakumeak	Gizonak
1. lerroa. Gobernantza	38	37	% 97,4	121.589	267.454,99 €	924	381
2. lerroa. Zaintza erantzukideak	14	9	% 64,3	1.577	41.034,65 €	117	18
3. lerroa. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea	19	17	% 89,5	9.728	593.508,66 €	530	184
4. lerroa. Jaiak eta kultura ez-sexista	16	11	% 68,75	5.863	412.282,94 €	247	129
5. lerroa. Ohitura osasuntsuak eta kirola	10	6	% 60,0	955	42.736,36 €	81	19
6. lerroa. Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa	24	23	% 95,8	13.832	637.481,29 €	1.562	1.029
7. lerroa. Autonomia eta norberaren boterea	21	12	% 57,1	2.561	201.479,98 €	291	91
GUZTIRA	142	115	% 80,9	156.105	2.195.978,87 €	3.752	1.851

* Baliteke pertsona berberak behin baino gehiagotan zenbatuta egotea.


Esku-hartze lerroak kontuan hartuta, **ekite tasa handienak lerro hauenak dira: Gobernantza (%97,4), Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa (%95,8) eta Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea (%89,5)**. Tasa txikienak, aldiz, lerro hauei dagozkie: Autonomia eta norberaren boterea (%57,1) eta Zaintza erantzukideak (%64,3).



Udalaren aurreko Berdintasunerako Planarekin alderatuta, ekite tasa 6,3 puntu handiagoa da, Donostiako Udalaren Berdintasunerako II. Planaren (2008-2013) ekite tasa % 74,6koa izan baitzen (264 ekintza zeuden aurreikusita guztira).

156.105 ordu (III. Planean aurreikusitako 49.070 orduak baino 3,18 bider gehiago) eta **2.195.978,87 euro** (III. Planean aurreikusitako 1.315.300 euroak baino 1,67 aldiz gehiago) erabili dira neurriak garatzeko. Erabilitako orduen % 77,9 Gobernantzan pilatu dira; lerro horretakoak dira ezarritako neurrien % 32, eta ordu asko erabili dira berdintasun arloko prestakuntzarako. Gastuari dagokionez, erdia baino gehiago indarkeriaren aurkako lerroan (3L) eta partaidetzarako lerroan (6L) pilatu da.

Berdintasunerako III. Planaren ezarpen prozesuan 3.752 emakumek (% 67) eta 1.851 gizonek (% 33) parte hartu dute, hau da, gizon bateko bi emakumek.



Hurrengo orrialdeetan, lerro bakoitzerako zehaztuta datoz abian jarritako neurriak eta horien adierazleak, baita ezarri ez izanaren arrazoiak ere, abian jarri ez diren neurrien kasuan.

1. ARDATZA. GOBERNANTZA

Ekite tasa: % 97,4

1. ardatzean, Gobernantza, aurreikusita zeuden 38 neurrietatik 37 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurria: 1.13.2.

Neurri horren xedea zen 4/2005 Legean jasotako neurriak aintzat hartuta zeharkako neurrien jarraibidea pixkanaka zabaltzea zen, genero ikuspegia txertatzeko. Neurri hori jada ez da beharrezkoa, horren edukia gainditu egin baita bi dokumentu hauek garatuta: berdintasunerako ordenantza (1.13.3.), zeina oraindik onartu gabe baitzegoen txosten hau egitean, eta genero inpaktuaren aurretiko ebaluaziorako jarraibidea (1.13.1.), 2019ko martxoan onartua.

Erabilitako baliabideak

- 121.589 ordu
- 267.454,99 €

Funtsezko neurriak

- 1.1.1. neurria. Donostiako Udalaren aurrekontuetan berdintasunerako partida berezi baten aldeko konpromisoa hartzea. Pixkanaka gora egin du berdintasun neurriak garatzeko partida espezifikoak esleitu dituzten departamentu edo zerbitzuen kopuruak, eta horrek berdintasun politiken zeharkakotasuna mesedetu du.
- 1.1.2. neurria. Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrek genero ikuspegia aintzat hartuta prestatzea. Berdintasun Bulegoak eta Aurrekontuak departamentuak genero ikuspegia aintzat hartuta aztertu dituzte urtero udal aurrekontuak. 2019ko udal aurrekontuetan, programen % 35,2 aztertu dira, eta udal aurrekontuaren % 57,13 dagokie horiei. Gastu eraldatzailea % 0,42koa da.
- 1.2.1. neurria. Kontratazioan gizarte klausulen jarraibidea aplikatzen dela bermatzea. Kanpoko lankidetzaren proiektuetarako dirulaguntzak. Dirulaguntzen oinarri arautzaileek berdintasuneko klausula espezifikoak dituzte, genero ikuspegia kontuan hartzen dutenak diruz lagundutako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan. Emakume kopuru handia biztanleria onuradunaren artean.
- 1.2.2. neurria. Donostiako Udalaren kontratazioen diagnostikoa egitea, genero ikuspegitik. Urtero aztertu dira Udaleko kontratuetan txertatutako berdintasun klausulak.
- 1.4.4. neurria. Hiri Behatokia berdintasunaren adierazleak txertatzea. Open Data proiektua. Berdintasun Bulegoak parte hartu du Datuen Udal Behatokia sortzeko prozesua definitu duen sailarteko taldean, eta genero ikuspegia aintzat hartu da zeharka prozesu osoan.
- 1.8.1. eta 1.13.3. neurriak. Berdintasun Bulegoak eta Idazkaritzak mainstreaming tresnak garatzea. Arauek eta administrazio ekintzek generoaren arabera duten inpaktuaren aurretiko ebaluazioak prestatzeko prozedura eta Berdintasunerako Ordenantza.
- 1.8.1. neurria. Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua aldatzea. Ekintza positiboak sexuetako bateko ikasleak % 40 baino gutxiago diren espezialitate eta diziplinetan: sexu minoritarioko hautagaiak sartuko dira egindako zozketaren hurrenkeran, desoreka zuzendu arte.

- 1.4.1. neurria. Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren jarraipena egiteko aplikazio bat sortzea. III. Planaren urteko programazioa, jarraipena eta ebaluazioa errazago egiteko, aplikazio informatiko bat garatu da. Aplikazioa Berdintasun Departamentuan eskura daiteke, eta Planaren ezarpenean parte hartzen duten departamentu eta erakunde guztiek erabil dezakete.
- 1.4.5. neurria. Berdintasunaren egoeraren gaineko azterlan bereziak egitea. Danborradari buruzko azterlana argitaratu da. 350 ale. Azterlana egiten lagundu duten pertsoneri, elkarte gastronomikoei, ikastetxeei, guraso elkarteei... banatu zaie.
- 1.7.1. neurria. Berdintasun arloko Prestakuntza Plana prestatzea Donostiako Udaleko teknikari eta politikarientzat. Prestakuntza Planak sentsibilizazioari eta berdintasun politiken hastapenari buruzko ikastaro orokorrak eskaini ditu udal langile ororentzat, eta baita hainbat ikastaro espezifikoko ere, hala nola indarkeria matxistari buruzko formakuntza indarkeria jasaten duten emakumeekin lan egiten duten langileentzat (gizarte langileak eta udaltzaingoa, besteak beste), aurrekontuei eta generoari buruzko ikastaroak, hirigintza eta genero ikuspegiari buruzko prestakuntza, musikologiari eta musika ikasketei aplikatutako genero ikuspegiari buruzko saioak Musika eta Dantza Eskolako langileentzat...
- 1.10.1. neurria. Donostiako Udalaren mendeandauden erakundeetako Berdintasun Planen arteko koordinazioa sustatzea. Donostia Kulturak eta Dbusek berdintasunerako barne planak prestatu eta onartu dituzte, aurretiko diagnostiko batean oinarrituta.
- 1.12.1. neurria. Donostiako Udalaren plangintza koordinatzeko gune guztietan parte hartzea. Zeharkakotasuna hobeto kudeatzeko lantalde bat sortu da, Lehendakari Zuzendaritza buru duena. Berdintasun Departamentuak ere parte hartzen du. Hobekuntza lerro batzuk proposatu dira, zeharkako gaien kudeaketa eraginkorragoa eta eragingarriagoa izan dadin.
- 1.14.1. eta 1.14.2. neurriak. Berdintasunerako I. Barne Plana prestatzea eta bertan jasotako neurrien ezarpenari jarraipena egitea. Giza baliabideen arloan, suhiltzaileen LEPre oinarri arautzaileen zirriborroa aldatu zen, emakumeek eta gizonek aukera berdintasuna izan zezaten prozesuan.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
1.1.1. Donostiako Udalaren aurrekontuetan berdintasunerako partida berezi baten aldeko konpromisoa hartzea.						149 ordu 39.868,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 14 partida espezifiko daude berdintasunerako (2019ko aurrekontuak)
1.1.2. Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak genero ikuspegia aintzat hartuta prestatzea.						1.728 ordu 46.989,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Metodologia onartu da. Jarraibidea jasota dago Berdintasunerako Ordenantzaren zirriborroan. 5 txosten egin dira: <i>Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik.</i>
1.2.1. Batzorde Teknikoari laguntza eta aholkularitza ematea, kontratazioko gizarte klausulen ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.						1.032 ordu 1.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 101 kontsultari erantzun zaie.
1.2.2. Donostiako Udalaren kontratazioen diagnostikoa egitea, genero ikuspegitik.						266 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Donostiako Udalaren kontratazioen % 21 aztertu dira. Kontratazioko gizarte klausulei buruzko urteko txostena egin da. Berdintasun atala.
1.3.1. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren gaineko prestakuntza eskaintzea						145 ordu 750,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 5 prestakuntza ekintza egin dira. Parte hartzea: 52 emakume eta 29 gizon.
1.3.2. Hizkuntzaren erabilera inklusiborako tresnak ezagutaraztea.						30 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2 tresna ezagutarazi dira.
1.3.3. Hizkuntzaren erabilera inklusiboari buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzea.						253 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 33 kontsultari erantzun zaie.
1.4.1. Aplikazio informatiko egokiak garatzea.						770 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2 aplikazio informatiko garatu dira: III. Planaren jarraipena eta Etxearen datu-basea.
1.4.2. Departamentuetako dirulaguntzen fitxetako datuak baliatzea.						35 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Lagin bat aztertu da. Ondorioen eta hobekuntza lerroen txostena egin da.

1.4.3. Iraunkortasunerako Memorian berdintasun adierazleak txertatzea.



120 ordu
0,00 €

- 6 berdintasun adierazle zehaztu dira.
- 23 adierazle bereizi dira sexuaren

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
1.4.4. Hiri Behatokian berdintasun adierazleak txertatzea.						125 ordu 50.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 11 berdintasun adierazle zehaztu dira. • 60 adierazle bereizi dira sexuaren arabera.
1.4.5. Berdintasunaren egoeraren gaineko azterlan bereziak egitea.						593 ordu 47.288,20 €	<ul style="list-style-type: none"> • Danborradari buruzko lana argitaratu da. • 15 azterlan berezi egin dira.
1.5.1. Sariak banatzeko eta kultura ondasunak eskuratzeko epaimahaietan klausula bat sartzea, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzeko.						49 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Epaimahai guztietan klausulak ezarrita.
1.6.1. Hiriko jaialdietan Berdintasunerako Sarien sorrera sustatzea.						40 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 0 sari sortu dira. • Giza Eskubideen Jaialdiko sari orokorra kreamailera sistema erabiliz eman da.
1.6.2. Urrezko Danborrerako eta Hiritar Merezimenduaren Dominetarako hautagai zerrendetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea.						25 ordu 0,00 €	Hautagaien % 39 (2015-Danborra), % 45 (2016-D), % 55 (2017-D), % 80 (2018-D) eta 100 % (2019-D) emakumeak izan dira.
1.6.3. Aholkularitza eskaintzea, epaimahaietan genero ikuspegia aintzat har dadin.						41 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 7 kontsulta jaso dira. • Epaimahaikideen % 41 neskak izan dira, Beldurrezko Asteko epaimahai gaztean.
1.7.1. Berdintasun arloko Prestakuntza Plana prestatzea Donostiako Udaleko teknikari eta politikarientzat.						106.722 ordu 22.605,96 €	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun arloko 32 prestakuntza ekintza antolatu dira. • Parte hartzaileak: 233 emakumezko langile (% 52,8) eta 208 gizonetzko langile (% 47,2). % 5,2 politikariak, % 4,1 zuzendariak, % 88,7 teknikariak eta % 2,0 administrariak. • 90 orduko prestakuntza eman zaie Berdintasun Bulegoko langileei.

1.7.2. Berdintasunaren arloan formazioa duten pertsonen buruzko informazio eguneratua eskura edukitzea.					25 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko langileen % 20k berdintasun arloko prestakuntza
1.8.1. Generoaren araberako eraginaren erre-ebaluazioak egitea.					320 ordu 92,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 7 arau edo ekintza ebaluatu dira.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
1.9.1. Berdintasun Bulegoaren antolamendua eta jarduera hobetzea.						2.018 ordu 2.100,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 192 saio egin dira. 46 hobekuntza lerro identifikatu dira.
1.9.2. Egungo lanpostu teknikoen egonkortasuna hobetzea.						93 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona bat gehiago sartu da Atalean, kontratazio egonkorreko formularekin. Teknikari guztiak gutxienez 150 orduko prestakuntza dute berdintasun arloan.
1.9.3. Berdintasun Bulegoko langileen premien diagnostikoa egitea.						35 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Teknikari bat kontratatu da.
1.10.1. Donostiako Udalaren mendean dauden erakundeetako Berdintasun Planen arteko koordinazioa sustatzea.						100 ordu 20.971,83 €	<ul style="list-style-type: none"> 3 lan saio egin dira. Koordinazio lanak egin dira Donostia Kulturarekin eta Dbusekin. Dbuseko Berdintasunerako II. Plana eta Donostia Kulturako Berdintasunerako II. Plana prestatu dira.
1.10.2. Udalaren mendeko erakundeei berdintasunaren arloan bete behar dituzten aginduen berri ematea.						24 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa eman zaie 2 erakunderi.
1.11.1. Erakunde arteko Berdintasun Sareetan parte hartzea.						1.297 ordu 366,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 5 saretan parte hartu da: GFA Mainstreaming, GFA Indarkeria, GFA Partaidetza, Berdinsarea eta Emakumeen Etxeen Sarea. 29 lan saio egin dira.
1.12.1. Donostiako Udalaren plangintza koordinatzeko gune guztietan parte hartzea.						1.546 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 27 saio egin dira. Ekarpenak jaso dituen plan bat egin da.
1.13.1. Langile guztiak Zeharkako Neurrien Jarraibidea ezagutzen dutela bermatzea.						496 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Langileen erdiek ezagutzen dituzte 4/2005 Legearen betebeharrak, jarraibidean jasoak.
1.13.3. Berdintasunerako Udal Ordenantza egiteko aukera aintzat hartzea.						255 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Udal ordenantzaren zirriborroa egin da. Onartzeke dago.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
1.14.1. Berdintasunerako Barne Plan bat prestatzea, honako arlo hauek arautzeko: langileen kontratazioa, mailaketa profesionala, sustapena eta formakuntza, lansariak eta lan orduen antolaketa. Helburua da bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko erraztasunak ematea, berdintasuna aintzat hartuta, eta sexu jazarpena nahiz jazarpen sexista prebenitzea.						240 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 8 arlo landu dira. • 45 neurri definitu dira. • Berdintasunerako Plana 2014ko azaroan onartu zen.
1.14.2. Berdintasunerako Barne Planaren neurrien txertatze prozesuaren jarraipena egitea.						247 ordu 800,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Jarraipen txostena eginbidean dago.
1.15.1. Berdintasunerako III. Planaren Komunikazio Plana zehaztea.						925 ordu 5.050,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 14 helburu zehaztu dira. • 15 neurri definitu dira. • Langileen % 28k Planari buruzko hitzaldietan parte hartu du. • 4 ideia/iradokizun proposatu dira hitzaldietan.
1.15.2. Berdintasunerako Sailarteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa indartzea.						231 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 5 lan saio egin dira. • Zinegotzigoen eta zuzendaritzen % 47k saioen % 80 baino gehiagotan parte hartu dute.
1.15.3. Berdintasunerako Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa indartzea.						330 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 9 lan saio egin dira. • Departamentuen % 90ek lan saioen % 80 baino gehiagotan parte hartu dute.
1.15.4. Departamentuen barne koordinazioko egiturak diseinatzea, departamentu bakoitzaren errealitatera egokituak.						200 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 8 departamentuk dute berdintasunerako barne koordinazioko egitura aktiboa.
1.15.5. Sailarteko koordinaziorako egiturak indartzea.						180 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Batez beste, urtean 4 lan saio egin dituzte egiturako.
1.15.6. Administrazioaren eta mugimendu asoziatiboaren arteko kogestio eredu mistoak garatzea, batez ere desberdinkeria maila handiagoa duten kolektiboekin.						30 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektu 1 (Auzoetxeak) garatu da.

1.15.7. Planaren ezarpen mailaren jarraipen etengabea eta urtekoa egitea.

2.171 ordu
29.940,00
€

- 4 ebaluazio txosten eta ebaluazioko txosten 1 egin dira.
- 6 hobekuntza eta egokitze

2. ARDATZA. ZAINZA ERANTZUKIDEAK

Ekite tasa: % 64,3

2. ardatzean, Zaintza erantzukideak, aurreikusita zeuden 14 neurrietatik 9 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurriak: 2.2.1, 2.2.2, 2.2.5., 2.3.2. eta 2.3.4

2.2.1. *Zinegotziek zaintzara zenbat denbora bideratzen duten ikusaraztea* neurria borondaterik ezagatik gelditu da garatu gabe.

2.2.2. *Etxeko lanetan eta zaintza lanetan haur eta gazteen parte hartzea bultzatzea, mutilen jardunak bereziki aintzat harturik* neurria Hautxokoen eta Gaztelekuen bidez egituratu da (3.2.1. neurria).

2.2.5. *Elkarbizitza/familia eredu berriak ikusaraztea* neurria eskumen faltagatik gelditu da garatu gabe.

2.3.2. *Ama bakarrak osaturiko familiei laguntzea, egoera zailean badaude* neurria ez da garatu, Udalak ez duelako izan ez borondaterik, ez baliabiderik.

2.3.4. *Zaintza sare komunitarioen sorrera bultzatzea* neurri konplexua da, baliabide inbertsio handia behar duena.

Erabilitako baliabideak

- 1.577 ordu
- 41.034,65 €

Funtsezko neurriak

- 2.1.1. neurria. *Pertsona zainzaileen aldeko plana ezartzea*. 2014an, martxan jarri zen www.zaintzakcuidados.net webgunea, mendekotasuna duten pertsonen zainzaileentzako gunea. Gaur egun ez dago aktibo.
- 2.5.2. neurria. *Etxeko lanetan espezializaturiko aholkularitza zerbitzua eskaintzea*. Etxeko langileei eta horien enplegatzailerik aholkularitza juridikoa emateko zerbitzu espezifiko bat sortzea, zaintzen sektorean lan baldintza duinak lortzeko asmoz.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
2.1.1. Pertsona zaintzaileen aldeko plana ezartzea.						358 ordu 9.040,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Planaren % 30 gauzatu da. 5 plan operatibok zaintza lanen aldeko neurriak dituzte.
2.2.3. Gizonek etxeko lanetan eta zaintza lanetan ardurak har ditzaten sustatzea.						160 ordu 3.300,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2 tailer egin dira. Udaleko 21 langilek parte hartu dute.
2.2.4. Enpresen kontziliazio erantzukidea bultzatzea.						2 ordu 2.355,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Haurtzaindegi zerbitzua eskaini da prestakuntza
2.3.1. Norberaren mugikortasun premiei erantzutea, kontziliazioa errazteko.						20 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekuak erreserbatu dira haurdunentzat Txofreko
2.3.3. Oporretan adinez txikiak zaintzeko dauden baliabideen berri ematea.						100 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Urteko argitalpena egin da Gazteriaren web-orrian.
2.4.1. Etxeko langileen errealitatera hurbiltzea erraztea.						6 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko langileentzako Aholkularitza Zerbitzua sortu da (2.5.2.).
2.5.1. Etxeko Langileen erakundea bultzatzea.						60 ordu 100,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko langileekin lan egiten duten erakundeekin topaketa bat egin da, zaintzen talde eragilearen bidez.
2.5.2. Etxeko lanetan espezializaturiko aholkularitza zerbitzua eskaintzea.						265 ordu 23.239,65 €	<ul style="list-style-type: none"> 531 kontsulta jaso dira. 319 emakumek parte hartu dute. Gogobetetze maila 9,2koa da.
2.6.1. Hiriaren diseinuan eta antolakuntzan genero ikuspegia txertatzea.						606 ordu 3.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Hirigintzako teknikarien % 21ek formakuntza dute. Planen % 85 genero adierazleen sistemarekin ebaluatu dira.

3. ARDATZA. INGURUNE IRAUNKORRA ETA INDARKERIA MATXISTARIK GABEA

Ekite tasa: % 89,5

3. ardatzean, Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea, aurreikusita zeuden 19 neurrietatik 17 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurriak: 3.1.3. eta 3.4.2.

3.1.3. *Hiriko hedabideei indarkeriaren gaineko albisteen izaeraz gogoetaztea* neurria ez da garatu, kanpo erakunde bati egiten diolako erreferentzia eta Udalak ez duelako eskumen zuzenik bertan.

3.4.2. *Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei edo indarkeria hori erabiltzen duten gizonei esku hartzeko berezko espazioak eskaintzea* neurria ez da ezarri, konplexua delako eta baliabide inbertsio handia behar duelako.

Erabilitako baliabideak

- 9.728 ordu
- 593.508,66 €

Funtsezko neurriak

- 3.1.1. *neurria. Indarkeria matxistaren gaineko ezagutza bultzatzea.* Gazteria eta Berdintasun departamentuek gazteen artean gertatzen den indarkeria matxistari buruzko formakuntza-gogoeta jardunaldi bat antolatu zuten 2017an eta 2018an, hezkuntza formal zein informalaren arloan lan egiten duten profesionalentzat.
- 3.2.1. *neurria. Haurtxoko eta Gaztelekuetako hezitzaileekin batera lan egitea.* Gure txoko. Haurtxoko eta Gaztelekuetako espazioen erabilerari buruzko diagnostiko bat egin da, baita programazioari eta haur nahiz gazteen parte hartzeko moduari buruzkoa ere; LGTBQ gaien gaineko aholkularitza eman zaie Haurtxoko eta Gaztelekuetako hezitzaileei, eurek eskatuta.
- 3.2.3. *neurria. Sentsibilizazio kanpaina zehatzak garatzea.* Indarkeria matxista prebenitzeko Berdintasun Tailerrak egin dira Aiete, Antigua, Bidebieta, Egia, Gros, Intxaurren eta Martuteneko Gazteleketan.
- 3.2.4. *neurria. Emakume gazteen artean ahalduntzea sustatzea.* Eskolako 21 Agendako tailerrak egin dira, non gazteei irakasten zaien generoa eta ingurumena aintzat hartuz “begiratzen” kalei eta hiriari (nork egiten duen zer, nola erabiltzen den espazio publikoa...), eta Jantzi Again eta Saretuz ekimenak garatu dira, azken hori genero gogoeta eta guzti.

- 3.3.1. eta 3.3.2. neurriak. Sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako prebentzio eta jardute protokoloa. Aztertu, eguneratu eta Donostia Kulturarekin partekatu da. Une honetan, bigarren azterketa egiten ari dira.
- 3.6.1. neurria. Hiriko leku eta gune arriskutsuenak desagerraraztea. Eta 3.6.2. neurria. Berriro ere puntu kritikorik ez dela sortuko bermatzea. Sailarteko udal taldetik, genero ikuspegia aintzat hartuz aztertzen ari dira hiriaren konfigurazioa eta mugikortasuna, hirian arriskutsutzat jotzen diren lekuetan arriskua ezabatu edo arintzeko, eta puntu kritikoaren mapa eguneratu da. Hobekuntza ekintzak adostu eta gauzatu dira. Olatu Talka jaialdian esku hartze artistikoak egin ziren zenbait puntutan. Herritarren Partaidetza atalarekin lankidetzan, prozesuan parte hartzen duten elkarteei kontuak emateko bilerak egin dira.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
3.1.1. Indarkeria matxistaren gaineko ezagutza bultzatzea.						892 ordu 26.505,05 €	<ul style="list-style-type: none"> 32 azterlan eta ikerketatan parte hartu da.
3.1.2. Mugimendu feministak indarkeria matxistaren aurka bultzaturiko ekimenak sustatzea.						465 ordu 109.507,3 €	<ul style="list-style-type: none"> 52 kanpaina/programa babestu dira.
3.2.1. Haurtxoko eta Gaztelekuetako hezitzaileekin batera lan egitea.						234 ordu 9.137,77 €	<ul style="list-style-type: none"> Hezitzaileen % 90ek dute berdintasun arloko prestakuntza.
3.2.2. Neska eta emakume gazteen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa haur babesgabeen aldeko programa osoan txertatzea.						100 ordu 7.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 3 esku hartze egin dira.
3.2.3. Sentsibilizazio kanpaina zehatzak garatzea.						740 ordu 14.049,19 €	<ul style="list-style-type: none"> 6 kanpaina garatu dira.
3.2.4. Emakume gazteen artean ahalduntzea sustatzea.						835 ordu 98.460,73 €	<ul style="list-style-type: none"> 13.124 neska gaztek parte hartu dute. 554 tailer/ikastaro antolatu dira.
3.3.1. Sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako prebentzio eta jarduterako udal protokoloa eguneratzea.						707 ordu 3.300,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 1. eguneratzea (2014). Protokoloaren 2. eguneratzea onartzeke dago.
3.3.2. Enpresa publiko eta pribatuetan praktika on gisa ezagutaraztea.						80 ordu 800,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 3 udal erakunde/enpresatan ezagutarazi da.
3.4.1. Osasun arloko profesionalekin batera lan egitea.						32 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Hiriko osasun zentro guztietara zabaltzea Emakumeen Etxeko programa.
3.5.1. Berdintasun Bulegoaren eta Indarkeria Matxistaren Biktimentzako Arreta Zerbitzuaren (IMBAZ) artean koordinatzea.						397 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Koordinazioko 29 bilera egin dira.
3.5.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloa aplikatzen dela bermatzea.						738 ordu 3.267,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 21 esku hartze egin dira.
3.5.3. Premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea.						60 ordu 3.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria matxistaren arloko arretari buruzko diagnostikoa egin da.

3.5.4. Emakumeen Etxeko zerbitzu juridikoei eta psikologikoei laguntzea.



2.853 ordu
31.950,00 €

- 3.493 emakumeri eman diote arreta.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
3.5.5. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea.						152 ordu 28.231,62 €	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Ekintzako langileen % 45ek prestakuntza jaso dute. Gizarte Ekintzan emakumeentzako arreta espezifikoa diharduten emakumezko langile guztiek prestakuntza jaso dute. Udaltzaingoan emakumeentzako arretan lan egiten duten langileen % 25ek prestakuntza jaso dute. Emakumeen Etxean emakumeentzako arretan lan egiten duten langile guztiek prestakuntza jaso dute.
3.5.6. Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan.						26 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2 esku hartze egin dira.
3.6.1. Hiriko leku eta gune arriskutsuenak desagerraraztea.						994 ordu 251.500,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 52 esku hartze egin dira, puntu kritikoak zuzentzeko. Beste 9 puntu kritiko identifikatu dira.
3.6.2. Berriro ere puntu kritikorik ez dela sortuko bermatzea.						423 ordu 6.800,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Dekalogoia prestatu da. 72 proiektu edo plan ebaluatu dira. Proiektu edo plan horietan 10 aldaketa egin dira.

4. ARDATZA. JAIK ETA KULTURA EZ-SEXISTA

Ekite tasa: % 68,75

4. ardatzean, Jaiak eta kultura ez-sexista, aurreikusita zeuden 16 neurrietatik 11 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurriak: 4.2.1., 4.2.2., 4.5.2., 4.6.1. eta 4.6.2.

4.2.1. *Emakumeek hiriko jaietan aktiboki esku hartzen duten talde, elkarte... guztietan parte hartzen dutela bermatzea* neurria ez da garatu, konplexua delako eta baliabide inbertsio handia behar duelako.

4.2.2. *Hiriko jaien antolakuntzan emakumeen parte hartzea bultzatzea* neurria ez da garatu, edukiei begirako esku hartzeari eman zaiolako lehentasuna.

4.5.2. *Liburutegietan feminismoari buruzko atala sustatzea* neurriaren kasuan, ekimen indibidualak garatu dira, baina ez da esku hartze sistematizaturik egin.

4.6.1. *Emakumeek gastronomiaren arloan eginiko ekarpena ikusaraztea* eta 4.6.2. *Gastronomiarekin loturiko ekitaldi eta espazio publikoetan emakumeen parte hartzea bultzatzea* neurriak ez dira sustatu, ez direlako lehentasunezkoak eta Udalak ez duelako eskumen zuzenik horrelakoetan.

Erabilitako baliabideak

- 5.863 ordu
- 412.282,94 €

Funtsezko neurriak

- 4.1.4. neurria. *Jaietako indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio kanpainak egitea*. Baliabide gehiago bideratu dira urteroko kanpaina horretara, zeinak barne hartzen dituen udako jaiak eta San Tomas. Aste Nagusian Bulebarrean ipintzen den informazio guneak ordutegi zabalagoa izan du, eta jaietako egun guztietan egon da irekita. Era berean, autodefentsa tailer gehiago egin dira; horien eskaria handia da.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
4.1.1. Gizarte eragileek <i>Jai espazioetako prebentzio eta esku-hartze protokoloa</i> ezagutzen dutela bermatzea.						293 ordu 17.575,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Urtero lan egin da batez beste 300 tabernarekin. 24 partaide izan dira prestakuntzan.
4.1.2. Prebentzio neurriak kanpoko enpresek antolaturiko jai ekitaldietara zabaltzea.						6 ordu 50,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Kursaaleko eremura zabaldu da.
4.1.3. Beharrezko bitartekoak bideratzea, auzoetako jaiak antolatzen dituzten elkarteek indarkeria matxistaren prebentziorako neurriak har ditzaten.						12 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 12 eragileri eman zaie jardunbide protokoloa.
4.1.4. Jaietako indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio kanpainak egitea.						2.722 ordu 159.896,14 €	<ul style="list-style-type: none"> Sentsibilizaziorako 80.000 liburuxka banatu dira postontzietan urtero.
4.2.3. Jaietako publizitate kanpainetan eta karteletan emakumeak protagonista gisa ikusaraztea.						50 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Jaietako kartelen % 37k emakumeak izan dituzte protagonistatzat.
4.2.4. <i>Emakumeen parte hartzea Danborradan</i> azterlanean hobekuntzarako eginiko proposamenak gauzatzea.						40 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Dirulaguntzen oinarriak aldatu dira. Haur danborraden estatutuak berraztertu dira.
4.3.1. Estereotipo sexistarik gabeko kultur edukiak bultzatzea.						2.459 ordu 178.436,8 €	<ul style="list-style-type: none"> Parekidetasuna bultzatu da herri kiroletan (aizkolariak, harri-zulatazaileak). Kontxako estropadako sariak berdinu dira.
4.3.2. Neskentzako arte eta joko jardunak antolatzea.						66 ordu 13.205,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 17 ekintza sustatu dira. 24 neskak parte hartu dute.
4.4.1. Jaietako kultura eskaintzan, emakumeen presentzia bermatzea.						20 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> % 25 emakumeak izan dira jaietako kultura eskaintzan. Emakumeen partaidetza % 50ekoa izan da.

4.4.2. Hiriko kultura eskaintzan, antzerki, dantza, musika eta abarretan, emakume artisten presentzia bultzatzea.		50 ordu 30.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • % 35 emakumeak izan dira hiriko kultura eskaintzan.
4.5.1. Arteak eta feminismoak elkarri egiten dioten ekarpenaren gaineko hausnarketa guneak bultzatzea.		145 ordu 13.120,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Datu-basea egin da. • 2 talde feminista kontratatu dira.

5. ARDATZA. OHITURA OSASUNTSUAK ETA KIROLA

Ekite tasa: % 60,0

Abian jarri gabeko neurriak: 5.1.1., 5.1.2., 5.3.2. eta 5.3.5.

Erabilitako baliabideak

5. ardatzean, Ohitura osasuntsuak eta kirola, aurreikusita zeuden 10 neurrietatik 6 garatu dira.

5.1.1. *Emakumeen Zaintzarako Plan Integrala diseinatzea: zaintza fisikoa, emozionala, sexuala* neurria Donostiako Emakumeen Etxearen bidez bideratuko da.

5.1.2. *Produktu osasungarri-ekologikoen erabilera sustatzea* neurriari ez zaio heldu, horren ardura zuen zuzendaritzaren borondate faltagatik.

5.3.2. *Emakume gazteek jarduera fisikoa eta kirola egiteari utz diezaioten prebenitzea* neurria abian jarri gabe gelditu da, ez delako aliantzarik egin Donostia Kirolarekin eta Eskola Kirolarekin.

5.3.5. *Emakumeek kirola egitean sentitzen duten segurtasunik ezari aurre egiteko estrategiak diseinatzea* neurriari dagokionez, puntu kritikoen mapan lanean ari dira (3.6.1. neurria), baina ez zaio heldu emakumeen kirol jardueraren ikuspegitik.

- 955 ordu
- 42.736,36 €

Funtsezko neurriak

- 5.4.1. neurria. *Kirolarien berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzea, profesionalen artean, batez ere*. EMAK. Emakume kirolarien sarea, kirol arloan diharduten emakumeen ikusgaitasuna bultzatzeko, diskriminazioa salatzen, emakume eta gizon kirolarien arteko berdintasun erreala aldarrikatzeko eta espazio propio bat eratzeko sortua. Kirol txangoak eta jarduerak antolatzen ditu hainbat agenterekin elkarlanean, eta sentsibilizazio kanpainak egiten ditu.
- 5.4.2. neurria. *Emakumeen kirolak duintasun soziala lor dezan laguntzea*. “Goazen neskek” kanpaina, hiriko goi mailako emakume kirolarien lorpenak ezagutzera emateko, neskek erreferentzia positiboak izan ditzaten kirolatan.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
5.2.1. Neska gazte eta nerabeen mendekotasunei eta horiekin lotura duten indarkeria matxistako egoerei aurre egitea.						100 ordu 2.480,42 €	<ul style="list-style-type: none"> • 17 ikastaro egin dira. • 3 kanpainak txertatuta dute genero ikuspegia.
5.3.1. <i>Emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan</i> diagnostikoan proposatutako jarduera lerroen ezarpena bermatzea.						42 ordu 6.977,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 2 neurri sartu dira plan operatiboetan.
5.3.3. Emakume helduen jarduera fisiko eta kirol praktikarako aukera malguak egituratzea.						520 ordu 16.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 30 ekimen bultzatu dira.
5.3.4. Emakumeen artean bizikletaren erabilera sustatzea, gutxien erabiltzen duten kolektiboen artean, batez ere.						15 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaro bat antolatu da. • 15 emakumek parte hartu dute.
5.4.1. Kirolarien berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzea, profesionalen artean, batez ere.						108 ordu 700,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat egin da hedabideekin.
5.4.2. Emakumeen kirolak duintasun soziala lor dezan laguntzea.						170 ordu 16.578,94 €	<ul style="list-style-type: none"> • 36 emakume kirolari eta emakumezkoen talde agertu dira prentsan.

6. ARDATZA. EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKO ETA EKONOMIKOA

Ekite tasa: % 95,8

6. ardatzean, Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa, aurreikusita zeuden 24 neurrietatik 23 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurriak: 6.6.1

6.6.1. *Elkarte mistoetan berdintasunerako proiektuak sustatzea* neurria ez da garatu, ez zegoelako baliabiderik.

Erabilitako baliabideak

- 13.832 ordu
- 637.4811,29 €

Funtsezko neurriak

- 6.1.2. neurria. *Elkarteek baliabide eta espazioen arloan eginiko eskaerei erantzutea*. Emakumeen elkarreentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarte mistoentzako dirulaguntzen deialdia finkatzea.
- 6.2.1., 6.2.2., 6.2.3., 6.2.4., 6.2.5., 6.2.6. eta 6.2.7. neurriak, *Donostiako Emakumeen Etxea indartzeko*. Kogestioko hitzarmena finkatzea, Berdintasun Bulegoko langile bat arduraldi osoan aritzea honetan eta gainerakoak arduraldi partzialean, Etxeko zerbitzuak ematen dituzten profesionalen lan baldintzak hobetzea eta egoera bereziki zaugarrian dauden emakumeekin egiten den lana indartzea.
- 6.5.2. neurria. *Emakumeek hiriri eginiko ekarpena berreskuratuko duten proiektuak bultzatzea*. Donostia Kulturak eta 2016 Fundazioak **Donostiapedia** proiektua sustatu zuten, non ugaritu egin ziren emakumeei buruzko artikuluak eta hiriko emakumeei buruzko istorio baliotsuak bildu ziren. Musika eta Dantza Eskolak ahalegin handia egin du **emakume konpositoreen partiturak biltzeko, eta konpositore horien musikarekin kontzertu bat eskaini zuen** 2017ko azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
6.1.1. Elkarteen premiak, jarduerak, jokamoldeak... ezagutzea.						15 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 5 bisita egin dira.
6.1.2. Elkarreek baliabide eta espazioen arloan eginiko eskaerei erantzutea.						230 ordu 3.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarreek erabiltzeko lokal bat ezarri da.
6.1.3. Hirian jardunean ari diren emakume elkarte eta elkarte feministen gaineko informazioa eguneratzea.						30 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarte guztien gaineko informazioa eguneratu da.
6.1.4. Emakumeen elkarteen jardueren zabalkundearen parte hartzea.						20 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Hilean 5 jarduera zabaldu dira, batez beste.
6.1.5. Emakumeen elkarte ehunari oro har zuzenduriko dirulaguntzen maila hobetzea.						470 ordu 102.639,77 €	<ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntzen eskaeren % 90 eman dira.
6.2.1. Proiektuaren ibilera egokirako behar diren baliabideak ziurtatzea.						365 ordu 207.465,20 €	<ul style="list-style-type: none"> • 5.000 €-ko zuzkidura Berdintasun Bulegoari. • Urteko 46.000 euroko zuzkidura ekonomikoa Emakumeen Etxea Elkarteari. • Emakumezko udal langile bat arduraldi osoan. • Ez dakigu zer gogobetetze maila duten emakume erabiltzaileek Etxearen espazio fisikoarekiko.
6.2.2. Kogestiorako eredia indartzea, erabakiak hartzeko bidea, komunikabideak eta abar hobetuz.						2.930 ordu 46.200,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 2 kogestio bilera egin dira urtean. • Datu-basea egin da.
6.2.3. Emakumeen Etxearen proiektuaren zabalkunderako bideak hobetzea.						1.070 ordu 28.068,9 2 €	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko memoria egin da 2016an, 2017an eta 2018an. • 23.400 (2018) bisita izan ditu Emakumeen Etxearen web-orriak.
6.2.4. Etxearen barne proiektuen eta espazioen arteko ezagutza hobetzea.						38 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Sukalde espazioa. Gaur egun ez dago aktibo.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
6.2.5. Etxean parte hartzen ari diren emakumeen eta elkarten artean aniztasuna sustatzea.						100 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 1.023 emakume bazkide (2017/18 memoria). 2013-2018 aldiko hazkundera: % 354,7. 22 emakume elkartek eta talde
6.2.6. Zaurgarritasun egoera berezian dauden emakumeei begira (sexu langileak, transexualak, migranteak, presoak, preso ohiak, ijitoak, aniztasun funtzionaldunak) bideraturiko proiektuen eta baliabideen garapena bultzatzea.						1.487 ordu 85.690,40 €	<ul style="list-style-type: none"> 17 proiektu sustatu dira.
6.2.7. Beste Emakumeen Etxe batzuekin sareko lana sustatzea.						236 ordu 1.030,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2016an 7 Emakumeen Etxerekin izan zen lankidetzak, eta 2008an 4rekin. 4 lankidetzak proiektu garatu dira.
6.3.1. Emakumeen esku hartze aktiboa handiagotzea Udaleko Aholku Batzordeetan, atalarterko ikuspegi batetik.						165 ordu 5.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 6 hobekuntza lerro identifikatu dira.
6.3.2. Emakumeen parte hartze aktiboa handiagotzea Donostiako Udalak bultzaturiko beste prozesu parte hartzaile batzuetan.						30 ordu 6.050,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2014-2017 partaidetza: 3.510 emakume (% 49,8) eta 3.539 gizon (% 50,2).
6.4.1. Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluan parte hartzea bultzatzea.						408 ordu 788,00 €	<ul style="list-style-type: none"> Gehikuntza: 7 emakume. Gehikuntza: talde feminista/emakumeen elkarte bat.
6.4.2. III. Planaren jarraipena bultzatzea.						162 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 2 jarraipen bilera egin dira urtean.
6.5.1. Emakumeak eta Hiria Foroak egindako jarduerak ezagutaraztea.						180 ordu 3.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 11 jarduera ezagutarazi dira.
6.5.2. Emakumeek hiriari eginiko ekarpena berreskuratuko duten proiektuak bultzatzea.						5.195 ordu 126.500,00 €	<ul style="list-style-type: none"> 7 proiektu sustatu dira.

6.5.3. Generoaren araberako ikuspegia hiriaren diseinuan eta antolamenduan aintzat har dadin erraztea.



56 ordu
0,00 €

- Genero ikuspegia txertatu da 2 proiektutan.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
6.6.2. Lankidetzarako proiektuetan berdintasuna eta feminismoak bultzatzea.						228 ordu 1.500,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 10 lankidetzatan txertatu da genero ikuspegia. • 3 jardunbide egoki trukatu dira.
6.6.3. Hiriko espazio eta ekitaldi soziokulturaletan gogoeta feminista txertatzea.						367 ordu 20.549,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 7 espazio/ekitalditan txertatu da gogoeta feminista.
6.7.1. Beste lurralde batzuetan berdintasunerako politiken ezarpen prozesuetan laguntzea.						40 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 2 lankidetzatan gauzatu dira.
6.7.2. Esperientzia, baliabide eta praktika feministen trukerako guneak sustatzea.						10 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Esku hartze bat egin da.

7. ARDATZA. AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA

Ekite tasa: % 57,1

7. ardatzean, Autonomia eta norberaren boterea, aurreikusita zeuden 21 neurrietatik 12 garatu dira.

Abian jarri gabeko neurriak: 7.4.1., 7.6.1., 7.6.2, 7.7.1, 7.7.2, 7.7.3, 7.7.4, 7.8.3 eta 7.8.4

Erabilitako baliabideak

7.4.1. *Gizarte baliabideetan genero ikuspegia txertatzen dela bermatzea* neurria ez da gauzatu, oso konplexua delako eta baliabide inbertsio handia behar duelako.

7.6.1. *Emakumeen enpresak sortzeko proiektuen eta prozesuen kalitatea hobetzea*, 7.6.2. *Emakume ekintzaileen esperientziak ezagutaraztea*, 7.7.1. *Enpresetan berdintasunerako aginduak eta berdintasunerako kudeaketa bete daitezten bultzatzea* eta 7.7.4. *Enpresen esparruko erabaki postuetan emakumeen parte hartzea bultzatzea* neurriak Sustapen Departamentuaren eskumeneko neurriak dira, eta, azkenaren kasuan, eragiteko ahalmena mugatua da.

7.7.2. *Parte-hartze prozesuetan eta erabakiak hartzeko uneetan emakumeen presentzia bultzatzea* neurriak kanpoko erakundeengan du eragina, eta ez dago horietara iristeko ahalmenik. 7.7.3. *Udalaren mendeandauden Administrazio Kontseiluetan emakumeen presentzia bultzatzea* neurria Udalbatzaren osaerak baldintzatzen duenez, eragiteko ahalmena mugatua da.

7.8.3. *Hiriko baratzetan emakumeen parte hartzea bultzatzea* neurria ez da ez lehentasunezkoa, ez estrategikoa. 7.8.4. *Donostialdeko emakume baserriarren sarea sor dadin bultzatzea* neurria ez da lehentasunezkoa, eta Udalak ez du eskumenik.

- 2.561 ordu
- 201.479,98 €

Funtsezko neurriak


- 7.2.3. *neurria*. Hezkuntzaren arloko erakundeekin hezkidetzarako lan koordinatua bultzatzea. Esku hartu da 3 ikastetxetako patioetan (Jakintza, Aiete Ikastetxea eta Arantzazuko Ama), genero ikuspegitik integratzaileagoak diren jolas eremuak lortzeko.
- 7.3.1. *neurria*. Generoaren ukirik gabeko lanbide orientazioa bultzatzea. Hezkuntza eta Berdintasun departamentuek abian jarri dute “Zientzari So” proiektua hiriko 8 ikastetxetan. Programa horren helburua da bokazio zientifikoa haurtzarotik sustatzea, bereziki neskekengan, genero estereotipoak baitaude eremu horretan.
- 7.8.1. *neurria*. Egungo ekoizpen, erreproduktzio eta kontsumo ereduak zalantzan jartzea. Donostian kontsumo arduratsua sustatzeko, Jantziagain eta Saretuz ekimenak genero ikuspegia aintzat hartuta garatuta daude.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
7.1.1. Nazioarteko egunetako kanpainak egitea.						1.046 ordu 84.602,17 €	<ul style="list-style-type: none"> • 19 kanpaina egin dira. • 69 berri zabaldu dira hedabideetan.
7.1.2. Sentsibilizazio kanpainak egitea beste departamentu batzuekin, atalarteko ikuspegia aintzat harturik.						568 ordu 49.818,01 €	<ul style="list-style-type: none"> • 9 kanpaina egin dira lankidetzan. • 4 sail egon dira inplikaturik. • 4 proiektu sustatu dira.
7.2.1. Haurtxoko eta Gaztelekuetan hezkidetzan oinarrituriko planak garatzea						20 ordu 3.000,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Haurtxoko eta Gaztelekuetako espazioak eta programazioak aztertu dira.
7.2.2. Ikasleen Gurasoen Elkarrekin hezkidetzaren aurrean sentsibilizatzea.						54 ordu 2.240,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 3 jarduera egin dira. • Elkarrekin batek parte hartzen du.
7.2.3. Hezkuntzaren arloko erakundeekin hezkidetzarako lan koordinatua bultzatzea.						275 ordu 8.350,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 4 programatan parte hartzen da.
7.3.1. Generoaren ukiturik gabeko lanbide orientazioa bultzatzea.						145 ordu 14.580,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dakigu tailerretan eta saioetan parte hartu duten neska-mutilen kopurua.
7.5.1. Gizarte Zerbitzuetan ari diren pertsonen berdintasun arloko prestakuntza hobetzea.						59 ordu 3.634,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Ekintzako langileen % 45ek dute berdintasun arloko prestakuntza. • Berdintasun arloko 2 formakuntza ikastaro egin dira pertsonako Gizarte
7.5.2. Berdintasunerako prestakuntzarako sarrera bermatzea.						184 ordu 6.043,80 €	<ul style="list-style-type: none"> • 15 emakumek parte hartu dute <i>Empalabramiento</i> ikastaroetan (2018). • 15 emakumek eta 30 gizonek parte hartu dute gizarteratze eta laneratze tailerretan (2018).
7.5.3. Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeen kontratazioan genero estereotipoak ezaba daitezkeen bultzatzea.						20 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dakigu zenbat emakume kontratatu dituzten tradizionalki gizonen egiten dituzten lanetan.
7.5.4. Tradizionalki gizonen lantzat hartu izan diren lanbideetan prestaturiko emakumeekiko harremanak erraztea.						20 ordu 0,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dakigu zerrenda prest dagoen ala ez. • Ez dakigu zenbat erakunderi igortzen zaien.

ABIAN JARRITAKO NEURRIAK	1 4	1 5	1 6	1 7	1 8	BALIABIDEAK	ADIERAZLEAK
7.8.1. Egungo ekoizpen, erreprodukzio eta kontsumo ereduak zalantzan jartzea.						80 ordu 9.948,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 2 esku-hartze lerro identifikatu dira.
7.8.2. Trukerako ekimenen garapena bultzatzea.						90 ordu 19.264,00 €	<ul style="list-style-type: none"> • 3 ekimen identifikatu dira.

EMAITZEN ETA INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Berdintasunerako III. Plana HELBURUEN erdiespenari lotuta ebaluatzea



Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren iraunaldian, **aurreikusita zeuden 52 helburu zehatzetatik 47ri** heldu zaie, eta horrek esan nahi du **ekite tasa % 90,4koa** izan dela.


	Helburuak		
	III. Plana	Abian jarrita	%
1. lerroa. Gobernantza	15	15	% 100,0
2. lerroa. Zaintza erantzukideak	6	6	% 100,0
3. lerroa. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea	6	6	% 100,0
4. lerroa. Jaiak eta kultura ez-sexista	6	5	% 83,3
5. lerroa. Ohitura osasuntsuak eta kirola	4	3	% 75,0
6. lerroa. Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa	7	7	% 100,0
7. lerroa. Autonomia eta norberaren boterea	8	5	% 62,5
GUZTIRA	52	47	% 90,4

Helburu horiek barne hartzen zituzten neurrien kasuan aipatutako arrazoiak tarteko, **helburu hauek landu gabe geratu dira:**

- 4.6. helburua. Giro gastronomikoan emakumeen presentzia bultzatzea.
- 5.1. helburua. Emakumeek beren gorputza hobetu ezagutu eta zaintzea.
- 7.4. helburua. Gizarte talde kaltetuetako emakumeentzako gizarte baliabideak balioestean genero ikuspegia aintzat hartuko dela bermatzea.
- 7.6. helburua. Emakumeen ekintzailatza bultzatzea.
- 7.7. helburua. Emakumeen egoera hobetzea enpresetan.

III. Planaren diseinuan emaitzen adierazleak ageri baziren ere, horiek ez dira apenas bete; hortaz, Berdintasun Bulegoarekin eta Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin egindako **elkarrizketa eta lan saioetatik lortu den informazio kualitatiboari lotuta egituratu da emaitzen ebaluazioa**, eta emakume eta gizonen berdintasunak Donostian duen egoerari buruz egindako diagnostikoan **herritarrek** Planeko esku-hartze eremuei **eman dieten balorazioa** ere erabili da, erdietsitako emaitza nagusiak nabarmendu direlarik.

Zure ustez, Udalak behar beste egiten du berdintasuna lortzeko?				
	Guztir	Emakum	Gizonak	Ez-
Bai	41	31	10	0
EZ	83	66	14	3
Erantzunik ez	4	4	0	0
Guztira	128	101	24	3




Emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko integraleko⁽¹⁾ inkestari erantzun dioten pertsonen % 64,8ren ustez, **Udalak ez du behar beste egiten** berdintasuna lortzeko, eta % 32k **baietz uste dute**.

Emakumeen, gizonen eta pertsona ez-bitarren erantzunak bereizirik aztertuta, emakumeen % 65ek uste dute Udalak ez duela behar beste egiten berdintasuna lortzeko, eta % 31k, ordea, behar beste egiten duela diote. Gizonen artean, % 58ren ustez Udalak egiten duena ez da nahikoa, eta gainerako % 42aren ustez, berriz, bai (emakumeen kasuan baino 11 puntu gehiago). Pertsona ez bitarren kasuan, guztiek uste dute Udalak ez duela behar beste egiten.

Donostiako Udalak berdintasunarekiko duen konpromisoari 6,35 puntuko **batez besteko balorazioa** ematen diote **emakumeek**, 6,33koa **gizonek** eta **4,67koa pertsona ez-bitarrek**.

Donostiako Udalak berdintasunarekiko duen konpromisoaren batez besteko balorazioa



⁽¹⁾ 128 pertsonak erantzun diote inkestari: 101 emakumek (% 79), 24 gizonen (% 19) eta 3 ez-bitarrek (% 2).

Zure ustez, Donostian egin da aurrerapausorik berdintasunaren arloan?				
	Guztira	Emakum	Gizonak	Ez-bitarrak
Bai	104	80	21	3
Ez	22	19	3	0
Erantzunik ez	2	2	0	0
Guztira	128	101	24	3

Nolanahi ere, **inkestak bete dutenen % 81ek uste dute Donostian aurrerapausoak izan direla berdintasunaren arloan**; % 17ren ustez, ordea, ez da aurrerapenik izan.


Hortaz, **aurrerapausoak izan direla uste dute** inkestak bete dutenen artetik gehienek, **emakumeen % 79k, gizonen % 88k eta ez-bitarren % 100ek**, zehazki.

Planaren esku-hartze eremuei emandako balorazioari dagokionez, **emakumeek eta gizonak hobekien baloratu**


dituzten esparruak emakumeen asoziazionismo eta partaidetzarekin, jai zein kultura ez-sexistekin eta ohitura osasuntsuekin nahiz kirolarekin lotutakoak izan dira.

Genero ez-bitarreko pertsonen kasuan, zaintza erantzukideekin, jai eta kultura ez-sexistekin eta emakumeen asoziazionismo nahiz partaidetzarekin lotutako arloek jaso dute balorazio onena.

Balorazio kaskarra jaso duen arloa emakumeen autonomia ekonomikoarena izan da.



Berdintasunak hainbat esparrutan izandako aurrepenen batez besteko balorazioa



■ Emakumeak ■ Gizonak ■ Ez-bitarra



Gastu eraldatzailea

Emakume eta Gizonen berdintasunerako III. Planeko 1.1.1. *Donostiako Udalaren aurrekontuetan berdintasunerako partida berezi baten aldeko konpromisoa hartzea* eta 1.1.2. *Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak genero ikuspegitik prestatzea* neurriak ezarri direnez:

- **Handitu egin dira berdintasuneko aurrekontu programa eta zenbait departamentutako berdintasun partidak**, eta gehikuntza horri esker Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean aurreikusita zeuden beste neurri batzuk garatu ahal izan dira. Ondorioz, berdintasunerako udal politiken garapena sustatu da, eta aurrerapausoak egin dira berdintasunerako bidean.
- **Handitu egin da berdintasunerako gastu eraldatzailea.**
- **Berdintasuna txertatu da aurrekontuak prestatzeko prozesuan:** zuzendaritza askotako aurrekontu proposamenetan txertatu da, baita aurrekontu eztabaidan ere, eta berdintasun arloko gutxieneko politiko batzuk identifikatu dira, errespetatu beharrekoak.

Arrakastarako faktoreen artean, nabarmentzekoak dira neurri horiek abian jartzeko bultzada politikoa, aurrekontuetako zuzendaritzaren konpromisoa eta Aurrekontuetako eta Berdintasuneko talde teknikoek elkarlana, baita *Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik* izeneko txostenaren eskakizuna ere.

Datozen urteetako erronken artean, honako hauek daude: proiektuaren epe labur/ertainerako helburuak identifikatzea, pixkanaka horiek erdiesten saiatzeko; genero inpaktua are gehiago txertatzea aurrekontuen eztabaidan, zuzendaritzen eta politikarien konpromiso handiagoarekin; gastu eraldatzailearen jarraipena egitea; proiektuaren esparrua aurrekontuekin zerikusia duten funtsezko beste une batzuetara zabaltzea, horien prestaketatik haratago; zuzendaritzek berdintasun arloan hartu dituzten konpromisoak ezagutzea, horiek garatzeko aurrekontu partidak ezarri dituztela egiaztatzeko; hobeto zehaztea berdintasunerako jardunbideak, eta horiek Kudeaketa Planeko helburu eta ekintzekin lotzea.



ANÁLISIS DE LOS PRESUPUESTOS
MUNICIPALES 2019
DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO

Octubre 2018



Berdintasunerako politikak **zeharkako politiken erreferentzia** dira Udalean, eta **Berdintasun Bulegoa**, berriz, **horiek garatzeko oinarrizko baliabidea**.

III. Planaren iraunaldian, beste teknikari bat sartu da Bulegoan, Emakumeen Etxean arreta emateko, eta berdintasun arloko formakuntza lanpostua bete ahal izateko betekizuntzat ezarri da.

Gobernantza lerroaren ezarpen maila handiari esker, aurrera egin da berdintasuna udal politiketan txertatzeko bidean.

Funtsezko baliabideen artean, nabarmentzekoa da **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa**, zeinak esperientzia eta gaikuntza baititu berdintasunaren arloan. Batzorde horretan parte hartzen dutenak aliatuta daude, «*begirada aldaketa bat jazo da, eta berdintasunarekin lotuta ikusten dute beren jarduna*». Arrakasta faktore garrantzitsuak dira, halaber, berdintasun arloko formakuntza eta **hainbat mainstreaming tresnaren garapena**: sexuaren arabera bereizitako datuak (Open Data, Donostia Data...); generoaren araberako inpaktuaren erre-ebaluazioak egiteko jarraibidea (2019ko martxoan onartua); berdintasunerako ordenantza (onartzeke); berdintasunerako klausulak kontratazioan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan, edo aurrekontu eta genero proiektua, jada aipatu dena, zeinak ahalbide baitu udal politiken genero azterketan aurrera egitea (aurrekontuak, arau eta ekintza administratiboak, azterlanak...), desberdinkeria egoera agerian utzita eta egoera horretan eragiteko esku-hartze neurriak proposatuta.

Hona hemen aipatu beharreko zenbait adierazle:

- III. Planaren ezarpenean parte hartu duten beste udal departamentu, enpresa eta erakunde batzuetako 25 interlokuzio taldeek udaleko 25 unitate administratiboetatik 18 ordezkatzan dituzte (% 72).
- Udaleko langileen % 20k berdintasun arloko prestakuntza dute.
- Berdintasunerako Barne Plana ezarri da, enplegua lortzeko aukera berdintasuna bermatzeko neurriekin, kontziliazio neurriekin, sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako prebentzio eta jardute protokoloarekin...
- Sailarteko 2 lantalde martxan jarri dira berdintasuna lantzeko: puntu kritikoen taldea, gizarte klausulen taldea.

Dirección o unidad	Personal	Personas con formación en igualdad	%
Euskera	21	21	100%
Sindicatos	12	6	50%
Acción Social	122	55	45%
Participación	8	3	38%
Promoción Social	96	34	35%
Escuela de Música y Danza	72	23	32%
Fomento SS	43	12	28%
Dirección de personas (RRHH)	45	12	27%
Presidencia	48	13	27%
Guardia Municipal	379	93	25%
Alcaldía y grupos políticos	58	12	21%
Urbanismo	68	14	21%
Dirección Jurídica	16	3	19%
Medio Ambiente	41	6	15%
Donostia Kultura	211	28	13%
Donostia Kirola	39	5	13%
Movilidad	138	12	9%
Dirección Financiera	102	6	6%
Mantenimiento y servicios urbano:	151	6	4%
Prevención, extinción incendios y salvamientos	118	1	1%
TOTAL	1.788	365	20%

- Genero inaktuaren aurre-ebaluzioa egina duten araudiak: % 6,4 (2017), % 9,4 (2018).
- Berdintasunerako klausulak sartu dira kontratuen % 9,6an, dirulaguntzen % 100ean eta hitzarmenen % 8,2an (2014-2017 aldia).

Mainstreaming tresnen inaktua areagotzeko, beharrezkoa da zeharkakotasuna hobeto kudeatzea eta Kudeaketa Planarekin nahiz kudeaketa eta hobekuntzarako beste tresna batzuekin koordinatzea, baita berdintasun arloko formakuntza eskaintzea ere, lehendik aipatutako arlo espezifiko eta tresna batzuei lotuta.

Zaintzen arloan lan egiten duten taldeak elkarren artean koordinatzea eta etxeko langileengana nahiz zaintzak behar dituzten pertsonengana hurbiltzea

Zaintzari lotutako emaitza aipagarriak hauek izan dira:

- **Etxez etxeko arreta zerbitzuaren kontratua hobetu zen 2018an.**
- **Etxeko langileentzako aholkularitza zerbitzua** sortu da Emakumeen Etxean.
- **Zaintzen talde eragilea** sortu da Donostiako zaintzaileentzako laguntza planaren ezarpen esparruan, eta talde horrek zaintzekin lotutako aldarrikapenen dekalogo bat adostu du.



Hezitzaileei kontzientzia harraraztea

Nabarmentzekoa da *Haurtxoko* eta *Gaztelekuetako* hezitzaileekin egiten ari den lana. Horri esker, hezitzaileei ikusarazi zaie espazio horietan esku hartzen dutenean oharkabea sexismoa transmititzen dutela, eta haur zein gazteek bizi dituzten eta barneratuta dituzten ohar, bizipen eta egoera matxistak identifikatzeko gai izan daitezten lortu da. Hartara, esku hartze askoz berdinzaleago bateranzko aldaketa mesedetu da.

Casa de las Mujeres, un referente para las mujeres y el movimiento feminista



Berdintasunerako III. Plana ezarrita, indartu egin da Emakumeen Etxea, emakume askorentzat eta askotarikoentzat topaketarako, formakuntzarako, gogoetarako eta ekintzarako gunea dena. Emakumeen Etxea mugimendu feministak eta Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak elkarrekin kudeatzen dute. **Etxea erreferentziarako espazio bilakatu da Donostiako emakumeentzat, mugimendu feministarentzat** eta beste udalerrri batzuentzat.


Azken urtean, Donostiako Udalak 186.083,44 €-ko ekarpena egin dio Emakumeen Etxeari: 46.000 €, Emakumeen Etxea Elkartearekin espazioa arratsalde dinamizatzeko sinatutako hitzarmenean; 79.189,58 €, ikastaro, ahalduztze talde eta zerbitzuetarako; 49.066,92 €, eraikinaren mantentze lanetarako, eta 11.826,94 €, komunikaziorako. Era berean, Udalak udal langile bat ipini du arduraldi osoan Etxearen koordinazio eta dinamizazio lanetarako.

2014-2018 aldian, nabarmentzekoak dira lortutakoak:

- **Bazkideen kopurua handitu da:** 2013an 225 ziren, eta 2018an, berriz, 1.023.
- **Etxearen erabiltzearen artean gero eta aniztasun handiagoa dago.** 2017-2018 ikasturtean, 22 emakume taldek eta talde feministak erabili zuten espazioa, hainbat helburutarako eta hainbat profiletako kideekin. Aldi horretan eguneko 140 bisita erregistratu dira Emakumeen Etxean.
- **Zerbitzuen arloan diharduten emakumeen lan baldintzak hobetu dira.**
- 2017-2018 ikasturtean, **1.326 emakumek jo zuten zerbitzu hauetara:** *Gizarte Aholkularitza, Etxeko Langileentzako Aholkularitza, Ikasketen Homologazioa, Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku Hartzea, Norbanakoen Jabekuntzarako Gunea, Aholkularitza, laguntza taldea, Biluzik Mundura eta Lege Aholkularitza.*
- **Ahalduztze tailer eta guneen eskaintza sendotu da.** 2017-2018 ikasturtean, **427 emakumek parte hartu zuten ahalduztze taldeetan** («altxorrak», dinamizatzailearen esanetan), eta **321 emakumek, berriz, tailerretan.**

Bertan eskaintutako zerbitzuetako askotan (Ikasketen Homologazioa, Norbanakoen Jabekuntzarako Gunea eta Lege Aholkularitza) hilabetetik gorako itxaron zerrenda dago, eta horrek argi erakusten du desoreka dagoela bideratutako baliabideen eta eskariaren artean. Egoera hori izanik, kasu askotan profesionalak bidelagun gisa jarduten dute, haien eginkizunetatik haratago.

Erronka nagusia zera da, **espazio handiago bat lortzea, egoera onean dagoena eta ongi kokatua**, emakumeek espazio publikoan duten partaidetza soziopolitikoan indartuko duena eta mugimendu feminista nahiz emakumeen asoziazionismoa bultzatuko dituen. Eta espazio horri lotuta, baliabide gehiago, noski, Udalaren berdintasun politikak garatzeko funtsezkoa den espazio hori indartzen jarraitu ahal izateko.





Indarkeria matxista: prebentzioa eta esku hartzea

Nabarmendutako emaitzen artean daude indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurka esku hartzeko Udalak hainbat arlotan eta funtsezko agenteekin koordinatuta gauzatu dituen ekintzak.

2014-2018 aldian, nabarmentzekoak dira lorpen hauek:

- **Hiriko puntu kritikoaren mapa.** Hirigintza, Gizarte Ekintza, Partaidetza, Hiriko Azpiegiturak, Proiektuak eta Obrak, Udaltzaingoa, Mugikortasuna eta Berdintasuna biltzen dituen sailarteko lantalde bat sortu da, eta herritarren partaidetzarekin esku hartu da, hirian antzemandako puntu kritikoak arindu edo ezabatzeke eta beste puntu batzuk sor daitezkeen ekiditeko.
- Eraikuntzen ordenantza aldatu da, **igogailuak eta atariak emakumeentzako espazio seguruagoak** izan daitezkeen lortzeko.
- Proiektu pilotu bat egin da, **Gautxori zerbitzuan eskatutako geldialdiak** sartzeko. Sistema hori 2018an ezarri zen, B8-Mirakontxa-Benta Berri-Seminarioa linean, eta hainbat hilabetez martxan egon ostean, gainerako gaueko lineetara zabaltzea erabaki da, funtzionamendu berbera izango duelarik linea guztietan.
- **Sentsibilizazio kanpainak jaietan eta azaroaren 25aren harira**, Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna delako.
- **Barne nahiz kanpo koordinazioa** hobetu da, eraso sexistei begirako esku hartzea eta indarkeriaren biktimenganako arreta hobetzeko.
- **Autodefentsa feministako** tailerrak egin dira.
- **Hezitzaileei prestakuntza eman zaie** (Haurtxokoak, Gaztelekuak, Kontadores, kale hezitzaileak...), Beldur Barik programan parte hartu da eta eraso sexistetan esku hartzeko protokoloa diseinatu da Kontadoresen.
- Nerabezaroko indarkeria matxistari buruzko jardunaldiak egin dira. Bi edizio, Gazteriak eta Berdintasunak lankidetzan antolatutak.





Jai berdinzaleagoak

Jai berdinzaleagoak lortzeko bidean egindako aurrerapausoei dagokienez, Kontxako Estropadan gauzatutako esku hartzeak nabarmendu behar dira. Berdintasunerako III. Planaren iraunaldian, **pixkanaka handituz joan dira emakumeen estropadako sariak, 2018ko edizioan gizezkoen sariekin parekatu arte.**

Azpimarratzekoa da, halaber, jaietan gora egin duela herri kiroltako probetan parte hartzen duten emakumeen kopuruak (esku pilota, estropada, aizkolariak, harri-zulatzailak...).

Planaren iraunaldian, bi emakumeri (2016, 2019) eta bi gizoni (2015, 2018) **eman zaie Urrezko Danborra** (eman gabe geratu zen 2017an); 1967tik ordura arte, honako hau izan zen banaketa: 6 emakume (% 8) eta 66 gizon (% 92). Azken urte honetan, herri bozketarako aukeratutako hautagai guztiak emakumeak izan ziren, banaketa hori orekatuz joateko asmoz.

Gora egin dute emakumeen emanaldiek Kursaalera kontzertuetan (% 50 emakumeak) eta Sagueseko kontzertuetan (% 30 emakumeak) Aste Nagusian.

Emakume kirolarientzat erreferentziak



Donostiako Kirol arloko Berdintasunerako Plana (2012) prestatzeko prozesuan, Donostiako hainbat emakume kirolarik parte hartu zuten, eta Emak (**EMakume Kirolariak**) taldea sortzea erabaki zuten, kirol arloan berdintasuna ezartzen laguntzeko. Kirol txangoak eta kirolarekin lotutako film eta dokumentalen proiektioak antolatzen dituzte.

Nabarmendu beharreko emaitza bat da Emak taldetik gaur egun modu autonomoan kudeatzen dituzten beste proiektu batzuk jaio direla, hala nola **Emakume Surfari** eta **Plaza Emakumeak**.

Hiru espazio horiek **erreferentziakoak dira emakume kirolarientzat eta kirol arloan berdintasuna ezarri nahi duten elkarteentzat.**

Donostia Kultura-Festak eta Donostia Kirola erakundeek sustatutako beste kanpaina eta erakusketa batzuek ere lagundu dute emakume kirolarien ikusgaitasuna hobetzen.

BERDINTASUNA_AI

INDARGUNEAK

Mantendu edo
indartu beharrekoak

AHULTASUNAK

ezabatu edo txikitu
beharrekoak

**PROZESUAR
EN
EBALUAZIO
A**

<p style="text-align: center;">INDARGUNEAK (mantendu edo indartu beharrekoak)</p>	<p style="text-align: center;">AHULTASUNAK (ezabatu edo txikitu beharrekoak)</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Tresna egokia eta erabilgarria da barne funtzionamendurako. • Esku-hartze lerroen araberako egitura, iraunaldia eta maketazioa egokiak dira. • 1. lerroa. Gobernantza. Eduki garbiak ditu. • Hainbat arlo eta gaietako esku-hartze lerroak taldekatzeko ahalegina egin da, hasiera batean haien arteko erlazioa argi ez bazegoen ere. • Berdintasun Bulegoa buru izan da Planaren ezarpen prozesuan, eta laguntza eman du. • Berdintasun Bulegoak hilero egin du Planaren jarraipena. • Gora egin dute Plana kudeatzeko sail barruko egiturek. • Batzorde Teknikoak balorazio oso ona jaso du Berdintasunerako Planaren kudeaketa, koordinazio eta jarraipenerako egitura gisa, eta lantalde espezifikoek ere bai, proiektu eta neurri zehatzak garatzeko egitura gisa. • Berdinsarean eta Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarean parte hartzea lagungarria izan da Planean aurreikusitako neurriak garatzeko. • Planaren plangintza operatiborako eta jarraipenerako aplikazioak Planaren kudeaketa sistematizatzea erraztu du. • Ugaritu egin dira Planean ordezkariak edo partaidetza duten udal departamentu, enpresa eta erakundeak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasunak daude berdintasuneko plan sektorialekin eta enpresa zein erakunde autonomoen berdintasun planekin uztartzeko. • 6. eta 7. lerroetan neurri nahasgarriak daude. • Lerro, helburu eta neurri gehiegi daude. • Adierazleak ez daude zenbakituta, eta ez dira egokiak neurrietan ekintza/esku hartze berriak sartzean. • Neurriak-ekintzak erlazioa: zailtasunak daude esku hartze batzuk aurreikusitako neurrietan egokitzeko (ez dira neurri berriak sortu); esku hartze batzuek neurri batekin baino gehiagorekin dute lotura... • Interlokuzio talde ugari dago, eta horrek asko luzatzen ditu plangintza eta jarraipena. • Batzorde Betearazlea ez da funtsezko egitura Planaren plangintzarako eta jarraipenerako. • Gizarte lankidetzak eta partaidetzako egiturek apenas jarraitu diote Planari. • Desoreka dago III. Plana erabat garatzeko baliabideen eta beharren artean. Berdintasuneko teknikari gehiago behar dira Berdintasun Bulegoan, Emakumeen Etxean eta gainerako udal departamentu, enpresa eta erakundeetan, eta eskaintza zabalagoa eskaini behar da berdintasun arloko formakuntzan. • Hainbat alderdi hobetu behar dira aplikazioan (nahitaezko eremuak, adierazleak, erregistroen bikoiztasuna...). • Funtsezkoak diren zenbait udal departamentu, enpresa eta erakundeak ez dute interlokuzio talderik edo haien taldea ez dago aktibo. • Ez dago behar besteko lidergo eta konpromiso politikorik Plana ezartzeko eta garatutako neurriak iakinarazi eta zabaltzeko.

	INDARGUNEA (mantendu edo indartu beharrekoak)	AHULTASUNAK (ezabatu edo txikitu beharrekoak)
GAUZATZE AREN EBALUAZIO A	<ul style="list-style-type: none"> • Neurrien ekite tasa handia izan da (% 80,9). • Ekite maila handia izan da lerro hauten: 1_Gobernantza (% 97,4), 6_Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa (% 95,8) eta 3_Ingurune iraunkorrak eta indarkeria matxistarik gabeak (% 89,5). • Aurreikusita zeuden orduak baino 3,18 bider gehiago bideratu dira Planaren ezarpena, eta aurreikusita zegoen diru kopurua baino 1,67 bider gehiago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekite maila ez da hain handia izan lerro hauetan: 7_Autonomia eta norberaren boterea (% 57,1), 2_Zaintza erantzukideak (% 64,3), 5_Ohitura osasuntsuak eta kirola (% 60) eta 4_Jaiak eta kultura ez-sexista (% 68,75). • Hauek dira neurriek ez ekin izanaren arrazoi nagusiak: ez izatea behar besteko borondate politikorik; baliabide gutxi edukitzea edo baliabide inbertsio handia behar izatea; departamentu, enpresa edo erakunde arduradunak ez laguntzea; Udalak ez edukitzea eskumen zuzenik dagokion arloan, edo neurria ez izatea lehentasunezkoa.
EMAITZEN ETA INPAKTUAR EN EBALUAZIO A	<ul style="list-style-type: none"> • Helburu zehatzen ekite tasa handia izan da (% 90,4). • Donostiako Udalaren berdintasunerako aurrekontua eta gastu eraldatzailea handitu egin dira. • Berdintasun Bulegoa erreferentziazko unitate bilakatu da Udal barruan. • Aurrerapausoak egin dira berdintasuna udal politiketan txertatzeko bidean. Gero eta kontzientziazio handiagoa dago politikek genero ikuspegitik duten garrantziari dagokionez. • Donostiako Emakumeen Etxea erreferentziazko espazioa da, bai herritarrentzat, bai beste udalerrri batzuentzat. Bertako zerbitzuak, tailerrak eta ahalduntze espazioak hobetu egin dira. • Donostiako Emakumeen Etxeari esker, Udalak harreman estuagoa du herritarrekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira neurtzen ez emaitzak, ez inpaktua. Gauzatzeari lotutako ebaluazioaren kultura da nagusi. • Berdintasuneko ordenantza onartzeke dago. • Zailtasunak daude Plana beste tresna eta kudeaketa sistema batzuekin uztartzeko. • Esku hartze zehatz batzuei eta mainstreaming tresna batzuei lotutako berdintasuneko prestakuntza ez da behar bestekoa. • Ez zaio behar adina heldu antolamenduzko kulturari.